

ANTONIO ZAVALA



**EZKONDU BEARREKO
BERTSOAK**

**EZKONDU BEARREKO
BERTSOAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA

187

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**EZKONDU BEARREKO
BERTSOAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipuzkoa)
Fotokonposatzaille: LENTE, Estella (Navarra)
Inprimatzaille: Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA.: 1.546-1985
ISBN: 84-7158-133-7

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Bertso Berriak: «Ama-alabak daude diskordiarekin...»	11
Bertso Berriak ama-alaben artean jarriak: «Bertsuak ipintzeko eman dit gogua...»	25
Ezkongaietan: «Ama, lengo batian etorri zat Andres...»	31
«Ezkontzarekin izbide asko jarri oi dira munduan...»	37
Neskatxa batek bere amari: «Neskatxa batek bere amari eman dio infernua aundiya...»	45
Ama eta alaba: «Amak ezkondu ninduen amabost urtetan...»	47
Bertso Berriak: «Ezkontzarekiñ nola nabillen bear nuke deklaratu...»	55
Bertso Berriak: «Emaztea ta bost alaba nik zer familia daukedan...»	61

«Barrundik nago nekean, ez sosegu ta pakean...»	69
Bertso Berriak: «Kantatzera barrengo gustuak narama...»	75
«Publikatu nai nuke zer moduz nagoan...»	83
Ezkogaientzat kondiziyuak: «Itzegin nai det neskatxa eta mutil batzuen bizitzan...»	87
Bertso-Berriak: «Notiziya polit bat Tolsa'n det jakin...»	93
«...Senarra nai nuke ta ezkontza go-goan...»	99
Maritxu Mendaro'koarentzat: «Maritxu Mendaro'ko neskatilla fiña...»	105
Bertso Berriak ezkongaiaren gañian jarriak: «Orain kantu berri bat biar det ipini...»	107
Donostia'ko Manuela: «Bost galai gazterekin damatxo polit bat...»	115
Bertso Berriak soltero daenak espabilatzeke: «Gazte soltero nago, ala nai det izan...»	121
Bertso Berriak: «Bestek enkargatu nau bertso bi jartzeko...»	127
Amoriyozko ezkontza: «Ai, nere biyotzeko Jose Antoniyo...»	133
Bertso Berriak senar-emaztegaiak alkarri jarriak: «Pretensioaz nator, Joxepa Antoni...»	149
Amodiozko astia: «Astelen batez galai bat onduan zan bai jarri...»	155
Bertso Berriak nere maitiari jarriak: «Bertso berri batzuek nai nituzke jarri...» ..	159

ITZAURREA

Orain ogei ta amar bat urte, Azkoiti aldean beintzat, onela asten zan kanta bat sarritan entzuten zan:

Ai au zoritxarreko
ezkondu bearra...

Kanta-asiera ortan oiñarritu gera, liburu oni izenburua emateko. Baiña ori bai: ezkondu bear ori zoritxarreko ala zorioneko dan alde bat utzita. Gu ez baigera iñor auzi ori epaitzeko.

Ala ere, ez du oso jakintsua bear, gizakiak ezkontzarako daukan joera ta zaletasuna ezagutzeko. Biziaren zama eramateko laguna nai, alegia. Adan egin da bereala Jaunak esan zuana: Ez da on gizona bakarrik izatea.

Ta gizonak biotzaren ugalmenetik itzegiten badu, ez da arritzekoa izango gai ortaz bertsoan ere zer edo zer ixuri izana.

Ortik jaioak dira amodiozko bertsoak, literatura guztietan ain leku zabala betetzen duan sailla.

Baiña liburu ontako bertsoak, iturri beretik sortuak badira ere, beste bide bat artu dute. Sarritan pikareskara geiago urbiltzen dirala esan bear.

Bidenabar, gure aiton-amonen bizimodu nola zan, ederki adierazten digute.

Orixe da, izan ere, bertso zaarren baliorik aundienetako bat: leengo Euskalerriren testiguantza eta lekukotasuna ematea.

Lenengo aitatuko degun erria Amezketa izanik, bera aukeratu degu, argazki baten bidez liburu onen azala apaindu dezan.

Besterik gabe, gure agurrik gozoena irakurleari, eta gaizki esanak barkatu ta ondo esanak gogoan artu...

A. Z.

BERTSO BERRIAK

1/ Ama-alabak daude
diskordiarekin,
esaten goaz nola,
nai duenak jakin;
ezkontzen utzi nai ez
gustokoarekin:
– Ama, ez naiz jarriko
zuk esanarekin.

2/ – Amak alaba nai diñ
txit ondo ikusi,
neketan nualako
egin eta azi;
aplikatuko niken
nik nun ondo bizi,
ez txorakeriako
ezkontzarik asi.

3/ – Tomas ezkontuzeko
maiz allegatzen zat,
ama, mutil polita
iduritutzen zat;
txit kariño aundia
daduka neretzat,
ta konformatzen gera
biok alkarrentzat.

4/ – Tomas zertarako den,
ume mukizue?
Bizimodua zer dan
nundik dakizue?
Oraindiokan bestek
ematen dizue,
gero izango dala
uste al dezue?

5/ – Maiz bisitatzen nau:
«Zer diozu, dama?»
Nere biotzak beti
argana narama;
mutil zintzua dala
badaduka fama,
biziko al gerade
saiatuta, ama!

- 6/ – Tomas jokalaria
dala det aditzen,
edanda ere iñoiz
bazekin orditzen;
festatik feriara
beti or zebiltzen,
alakoak etxera
eztin ezer biltzen.
- 7/ – Dantzari ederra da,
abilla jokuan,
koartoak biltzen ditu
dabilen lekuan;
ez al ditu utziko
guziak kanpoan,
Tomas zintzotuko da
ezkondutakoan.
- 8/ – Ez den, ez, mudatuko
engañatzen ezpanaiz,
ik probatu bear den
ezkondutzen baaiz;
artu bearko ditun
bizkarrekoak maiz,
miserian negarrez
or ibilliko aiz.

9/ – Ama, desafiorik
ez egin geroko,
miserian negarrez
ez naiz etorriko;
Tomasek maite nau txit,
ez nau, ez, ni joko,
kariñosoagorik
etzaigu jaioko.

10/ – Iri iduritzen zan
senargai ederra,
lau txanpon eztaduzkan
tunante alperra;
gero ez den zuzentzen
zartuta okerra,
eta etxe utsean
beti baden gerra.

11/ – Ama. zertako dabill
galerazitzeko?
Oraindikan sasoian
dago ezitzeko;
biok gazteak gaude
gustora bizitzeko,
ez nago kontu oiek-
gatik utzitzeko.

12/ – Ezkondu bear baden
artzan moduzkoa,
ez orrela tunante
dabilen mundukoa;
Jose den iretzako
nere gustokoa,
langillea ta zintzoa
pare bagekoa.

13/ – Ama, zer esaten dit?
Erotu al zaio?
Agure orri farrez
egoten naitzaio;
orren burutik ezta
kontu ori jaio,
ezkondutzerik ari
oroitzen etzaio.

14/ – Josek ezkondu nai diñ,
umill egon ari,
ez jardun ausentzian
beti pregonari;
begiraion aren
konduta onari,
zintzoa, abilla ta
aberatsa den ori.

15/ – Ama, gazteagan det
nik amorioa,
zarrak pretenditzea
da kontrarioa;
agure bizkar makur,
galtza jarioa,
iruditzen zat dala
nere erioa.

16/ – Alaba, itz txar oiek
sar itzan atzera,
bestela or naun sarri
makillaz jotzera;
Jose etorriko zan
jaiean etxera,
biok ezkonduzkeko
arreglatutzera.

17/ – Ama, mutil zar ori
al dakar jaiean?
Nunbait funtzioaren bat
ikusi naiean;
agudo joango da
datorren bidean,
ostikoaz jo eta
buelbaka aidean.

- 18/ – Neska, egin biaitun
amak aginduak,
bestela galduko au
oraingo munduak;
Jose artu zan eta
bazetin diruak,
aiekin egiteko
nai diran moduak.
- 19/ – Ama, ez det gustorik
nik diru utsean,
disposizioa ere
on da gorputzean;
galtzak bai ta gizonik
ezpadu etxean,
bizi-modua dago
estadu motzean.
- 20/ – Erakutsi nai niken
zer modutan bizi,
buru gogorra daukan,
ezin adiazi;
nai dedana egin zan,
orra libre utzi
ez etorri negarrez
biar edo etzi.

21/ – Ama, negarrez etxera
etorriko ez nazu,
nere gustoa egiten
uzten badidazu;
Jose begietatik
aparta gidazu,
Tomas orrekin, arren,
ipiñi nazazu.

22/ – Burua arro daukan,
gogo txit ero,
ez aiz beti izango
orain bezin bero;
lanak izaten ditun
ezkondu ta gero,
alako tunantea
beretu ezkerro.

23/ – Ama, eman dit zenbait
kontrako aitamen,
baña berean firme
dago alaba Karmen;
zeñek bere gustoa
egin bear emen,
ala gerta dedilla,
biba Tomas, amen.

Bertso auetan, irakurleak ikusi duanez, ama-alabak eztabaida gogorrean jardun dira, alabaren ezkontza dala-ta. Alkarizketan moldatutako bertso-saillak gaur baiño ugariagoak ziran garai batean, joan dan mendearen erdi aldean-edo.

Onako au oso ezaguna izan zan. Etzi-tuan, bestela, oinbeste argitaraldi izango:

Bertso-papera, *Vergaran: Manuel Imaz--en moldizteguian* argitara emana eta Paris'ko Liburutegi Nazionalean agertua. Au degu argitaraldirik zaarrena eta osoena.

* * *

Bertso-papera, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún* moldiztegian argitaratua eta Errenteri'ko Joakin Ganborena Zabala'ren eskutik jaso.

Onek ogei bertso ditu: 1, 2, 3, 4, 5, 12, 8, 9, 19, 18, 7, 13, 14, 15, 16, 17, 20, 21, 22 eta 23'garrena, orden orretan; 6, 10 eta 11'garrena falta, beraz.

Aldaketak: 2/3: Nequetan naucalako; 5/2: Cer di-
zu ama; 7/1: Doñari ona dala; 7/3: Cuartuac bilduto-
coitu; 7/7: Tomas mudatuco da; 8/3: Ic igarrico dion;
9/4: Ez naiz ibillico; 9/5: Tomasec maite nau ni; 12/3:
Ez orlaco tunante; 12/4: Abill moducua; 12/8: Parega-
becua; 13/5: Aren burutic ez ta; 14/4: Beti personari;
14/5: Beguiratuyon aren; 14/7: Abilla ta zintzoa; 14/8:
Ta aberatza den ori; 16/2: Zarrizcan atzera; 17/2: Al-
deco jayean; 18/1: Nesca eguin bearden; 18/2: Amac
aguindua; 18/3: Bestela galduric ao; 18/4: Oraingo
munduan; 18/5: Jose artu esan; 18/6: Arc ditun diruac;
18/7: Arrequin eguiteco; 18/8: Naitunan moduac;
19/6: Ezpadao aldamenian; 21/6: Quendu eguidazu;
22/7: Orlaco tunanteac; 22/8: Berotu ezquero; 23/1:

Amac emandit cembait; 23/4: Dagoala alaba Carmen;
23/8: Vivaca Tomas Amen.

* * *

**Bertso-papera, *Tip. F. Muguerza E. Hijos*
– Tolosa, Arizkun'en eskuratua.**

Onek emezortzi bertso ditu: 1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 12,
13, 14, 15, 16, 17, 20, 21, 22 eta 23'garrena; 6, 10, 11,
18 eta 19'garrena falta, beraz.

Aldaketak: aurreko paperak dituanak eta beste
auk: 2/8: Ezcontraturic asi; 7/1: Dantzari polita da;
7/3: Cuartuak biraltzenditu; 15/1: Ama gazteanidet.

* * *

**Bertso-papera, *Vergara: Imp. de J. López*
moldiztegia argitaratua eta Oxford'ko
Bodleyan Library'n agertua.**

Onk amazpi bertso ditu: 1, 2, 3, 4, 5, 8, 9, 12,
13, 14, 15, 16, 17, 20, 21, 22 eta 23'garrena; 6, 7, 10,
11, 18 eta 19'garrena falta, beraz.

Aldaketak: Irun'go B. Valverde'ren alargunareneko
paperak dituanak.

* * *

**Bertso-papera, *Imp. de S. de Diego.- Ei-*
bar moldiztegia argitaratua eta Gregorio
Mujika zanaren bilduman agertua.**

Onk ere amazpi bertso ditu, Berga-
ra'ko Lopez'eneko paperak dituan oiek be-
rak, eta aldaketak ere.

* * *

Bertso-papera, *Guernica. Imp. Artística Goitia y Hormaechea* moldiztegian argitara emana eta Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zarenaren eskutik jaso.

Onek ere, Bergara'ko Lopez'eneko papera dituan amazazpi bertso oiek, eta aldaketak ere berdiñak.

* * *

Bertso-papera, *Imprenta y Librería de Elosu.- Durango* moldiztegian argitaratua eta bi tokitan agertua: Leioa'ko Zabale baserriko Eulojio Bidea Agirre'ren eskutik, Bilbo'ko Alfonso Irigoien'ek bitartekotza eginda; eta Oxford'ko *Bodleyan Library*'n.

Onk amalau bertso ditu: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 19, 22 eta 23'garrena; 11, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 20 eta 21'garrena falta, beraz.

Aldaketak: 1/3: Esaten nua nola; 2/1: Amac alaba naidu; 2/3: Nequetan duelaco; 2/5: Aplicatu nai nuquen; 4/5: Oraindicuan bestec; 4/7: Ala isango dala; 5/1: Mais allegatzen daquit; 5/2: Cerdiosu ama?; 5/6: Bai daduca fama; 6/4: Baisequin orditzen; 6/7: Orlanguac echera; 6/8: estiñe serbitzen; 7/7: Tomás mudatuco da; 8/7: Negarrez miseriyas; 9/3: Negarrez miseriyas; 9/4: Enaiz ibillico; 10/3: Lau champon estaducan; 10/5: Eston erres susentzen; 12/5: Jose artusan eta; 12/6: Baiseucan dirua; 12/7: Arequin eguin goden; 12/8: Nai dezan modua; 19/4: Oida gortputzian; 19/5: Pracat bai eta guizonic; 19/6: Ezpadau echian; 22/2: Gogua chit bero; 2/3: Beti etzais isango; 22/7: Orlango tunantiai; 22/8: echeratu esquero; 23/1: Amac emanic seimbat; 23/4: Dagoala alaba Carmen; 23/7: Alan guerta dedilla.

Ortaz gaiñera, zenbait alditan aditza bizkaieraz.
Adibidez: *ditu* bearrean, *ditus*.

* * *

Beste zenbait tokitan ere arkitu ditugu bertso auek, eskuz edo makinaz idatzita; baiña sorta osoa iñun ere ez.

Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren bilduman, amabost bertso ta erdi; eta ondoren oar jakingarri au:

«Versos del tiempo de Fernando Amezketarra. Estos versos los recogí a mi madre, que los cantaba de memoria. Faltan algunas estrofas más; son versos compuestos por uno de Amézqueta y que se decía salió un matrimonio desgraciado con un Tomás calavera.»

Irun'en jaio eta Plazentzi'n bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman, bederatzi bertso.

Geiegi ez luzatzearren, ez ditugu zeñek zein bertso dituan esaten, ezta ere zer aldaketak dituan.

* * *

Bidasoa'z ipar aldeko *Kantuz* eta *Kantu kanta kantore* kanta-bildumetan, *Tomas* edo *Ttomas* izenburuaren azpian, iru bertso: 1, 7 eta 2'garrena, aldaketaz josita.

* * *

Errenteria'n, 1969-XII-7'an, Xenpelar il zaneke eungarren urte-muga ospatzera-koan, bazkalondoan, bertako Xabier Olas-koaga'k iru bertso oiek kantatu zituan, beste aldeko kanta-bilduma oietan dauden bezelatsu kantatu ere, asieran onela esa-nez:

– Mattin eta Xalbadorri iru bertso Frantzi aldekoak, ango doñu batekin kantatuko dizkiet.

Itxura danez, berak beste aldean ikasiak izango zituan, eta angoak zirala uste. Alde ontakoak izan, ordea. Izan ere, arrigarrak dira batzutan bertso zaarren ibillerak.

Ona eman zien doñua:





BERTSO BERRIAK
AMA-ALABEN ARTEAN JARRIAK

1/ Bertsuak ipintzeko
eman dit goguak,
engañatzen ez banau
oraingo munduak;
orretara jarri nau
pobrien ljuak,
ez ditu kejatutzen
urteko artuak.

2/ Alabak esan dio
lengoan amari:
– Soiñ bat ikusi diot
nik gaur fulanari;
orrelako bat nai det
ekartzia neri,
salduko bada ere
anega bat gari.

- 3/ Amak ipiñi dio
itza orri buelta:
– Orlakuak ikusita
artutzen den benta;
jartziaz konforme aiz
garia salduta,
naiz etxian gosiak
kalera apainduta.
- 4/ Alabak esan dio
bere delitua;
– Bedorregana nago
txit obeditua;
sastre bat artu beza
ongi aditua,
beriala josteko
neri abitua.
- 5/ – Dirua auzoan da
garia metetan,
jantzi-gaia gañera
erriko dendetan;
alaba daukat berriz
guzizko penetan,
orrela ez dala joango
kalera jaietan.

6/ – Ama, galdetzen diyot
ekarriko duan,
beste gauzarik ez det
beñere buruan;
arrote bizitzeko
persona munduan,
lotsatu ez banintzan
nik naiago nuan.

7/ – Ez naun ni atrebitzen
zorretan joatia,
ta ez den segurua
gañera ematia;
beste iru lekutan
zeukenat katia,
bakarrik den denda ori
libre dan atia.

8/ – Amak izan bear du
entendimentua,
ni egotera ezkeru
jantzi-berritua;
iñork ez du jakingo
gure kreditua,
naiz-ta iduki dendan
zorra gelditua.

- 9/ – Martxoa baño lenago
giñaden gelditu:
garia gutxi eta
arto zarrak aitu;
alabak ez digu nai
oraiñ obeditu,
soñeko berriakin
nai du ibilitu.
- 10/ – Ama, ez bedi izan
arren orlakua,
gariaz egin dezagun
soñeko tratua;
guziz aurrera dator
aurtengo kanpua,
laister elduko zaigu
jateko artua.
- 11/ – Neska, izan ari beti
obedientia,
alakuak zedukan
nun-nai suertia;
etzion emateko
iñori jentia,
obia den gariak
etxian jatia.

12/ – Suerte ona dadukat
Jaunari graziak,
osasuna gañera
ez txit itxusia;
bedorren borondatia
dago ikusia,
merezi luke bertan
kentzia bizia.

13/ – Kantari nekatuta
juan zait gogua,
onekin errematea
ematera nua;
mutill zintzo batentzat
ai zer nolakua,
nik etxean daukadan
alaba trapua!

Amairu bertso auek, or goiko izenburu orrekin, *Tolosa: -Imp. de E. López* moldiztegian argitaratutako kanta-paper batetik ditugu.

Paper ori, Oxford'ko *Bodleian Library*'n azaldua da; eta andik onera, papera ez, mikrofilma bialdu ziguten.

Ama-alabak alkar izketan jardungo dira; obeto esateko, eztabaidan.

Egillearen izenik ez da ageri. Urterik ere ez.

Baiña Tolosa'ko moldiztegi ori, 1878'etik 1929'ra egon zan Eusebio Lopez'en ardurapean. Tarte orretan jarritako bertsoak, izango izango dira, beraz.

EZKONGAIETAN

- 1/ – Ama, lengo batian
etorri zat Andres,
arekin ezkonduko
nintzakian galdez;
erresponditu bear
nai dean edo ez,
serbituko derala
esan diyot baietz.

- 2/ – Ondo jakin artian
gurasuen berri,
zertan agindu diyon
tunante zar orri?
Alper, gastatzallia,
poltsatikan urri,
orrek erakutsiko diñ
egualdi gorri.

3/ – Andres utzi ezkero
nun degu bestia?
Ama, ezta posible
nik ori uztia;
mutill kariñosua,
ederra ta gaztia,
kontentu balegoke
orren emazia.

4/ – Pasatutzen omen den ¹
askotan tragan,
jokalari berua,
ze prenda dagan!
lduk'itzin amaren
esanak goguan,
a ze bizkarrekuak
artzeko aguan!

5/ – Ama, desapiyorik
ez egin geroko,
Andresek ez nau, ez, ni
bizkarrian joko;
ezta jokuan ere
dirurik galduko,
oien bildurrik gabe
gera ezkonduko.

¹ M. Urreta'ren paperean: *Pasatzen*.

6/ – Ezkontzia baldin baden
orren prexixua,
Andres bañan obia den
Martín auzokua;
zintzua ta diruduna,
nere gustokua,
mutilla ezten, ez, ori
buru gaiztokua.

7/ – Ama, ezkongai txarra
ez dit jartzen ori,
lumatuta daguen
ollua diruri;
buruba kalbotuta,
bizarra ere zuri,
orlako majorik etzait
gustatutzen neri.²

8/ – Alaba, egin biar
diran orrenbeste:
itzegitera, arren,
juntatu zaitetze;
gaur etortzekua den
baimenaren eske,
ark faltatuko diñanik
nik ez diñat uste.

² M. Urreta'ren paperean: *gustatzen*.

9/ – Komeri bat polita
pasako da bertan,
nerekin asten bada
gaur emen ezertan:
ostikuaz joko det
bizkar oker ortan,
aguro juango da
etorri dan bueltan.

10/ – Amak alaba nai din
txit ondo ikusi,
neketan auelako
egin eta azi;
nik erakutsiko'ñat
nun da nola bizi,
ez txorakeritako
ezkontzarik asi.

11/ – Ama, ez det gustorik
nik diru utsian,
disposiziyua're
on da gorputzian;
galtzak bai ta gizonik
ezpada etxian,
bizimoduba dago
estadu motxian.

12/ – Neska, ni ibili naun
ire on bearrez,
bañan buru gogorra
ez biguntzen errez;
nai baden Peru artzan
ta nai baden Andres,
bañan ez amarengana
etorri negarrez.

Bertso auek, Tolosa'ko Manuel Urreta
zanaren bilduman arkitu ditugu, makinaz
idatzitako orri batean.

Ziur asko, berak moldiztegiren batean
argitara emandako bertso-paper batetik
kopiatuko zituan.

Sail onek, irakurlea oartuko zanez, le-
nengo saillaren gaia du. Gai ori erabiltzeko
modua ere berdiña, ta zenbait lerro ere
berdiñak edo berdintsuak.

Berdintasun oiek, guk uste, bertso-
jartzallea bat bera izan zala esan nai du,
jartzalle ori nor izan zan ez badakigu ere.

* * *

Urnieta'ko Felipe Yurramendi'ren aotik
bost bertso jaso genituan: 1, 6, 4, 5 eta
bertso berri bat.

Bertso berria:

Illia zuritua
buruban kalbua,
sukal-baztarrerako
a ze nolakua!
Gizon bat biar eta
ura olakua,
ama, ez naiz ezkonduko,
eztet gustokua.

Besteen aldaketak: 1/1: Ama, lengo egunian; 1/4: ote naizen galdez; 1/5: mutillez gustatu zait; 1/6: baitere ezkontzez; 1/7: berorren berri gabe; 4/1: Eduk'itzin amaren; 4/2: esanak goguan; 4/3: a zer bizkarrekuak; 4/4: artzeko aguan; 4/5: pasatutzen omen den; 4/6: noizik bein tragan; 4/7: jokalari berua; 4/8: ze prenda dagan; 5/5: ezta ere dirurik; 5/6: jokuan galduko; 5/7: orren bildurrik gabe; 6/1: Ezkontzia badaukan; 6/3: ori bañan obe den; 6/5: langillia, diruduna; 6/6: lagun artekua; 6/7: uraxen bai polita; 6/8: iretzat moukua.

* * *

Urdazubi'n, Miguel Sagastibelza'ren aotik, lenengo bertsoa jaso nuan, ta Yurramendi'ren aotik bezelaxe jaso ere.

EZKONTZA BATEN GAÑIAN

- 1/ – Ezkontzarekin izbide asko
jarri oi dira munduan,
orain gu ere ala gabiltza
parragarritzko moduan;
amak utzi nai ez alabari ta ¹
gustoa nerekin duan,
desesperatzen emen narabil
burutik iya galduan.
- 2/ – Nere alaba, zer esaten den?
Ez ago ondo buruti,
mutil pikaro tunanti ori
kendu ezan inguruti;
engañoak berekin zeuzkan,
birtute onak urruti,
ori beretzat artzen duanak
pagatuko din larruti.

¹ Esku-idatziak: *amak utzi naiz alabari ta.*

- 3/ – Ama nerea, engañatzeaz
oso naitzazu arritzen,
Jose Frantzisko nolakua dan
eztiozu igarritzen;
nere begiyen aurrian ezta
ederragorik jarritzen,
naiago nuke konsolatzeko
maiz balitzat etorritzen.
- 4/ – Nere alaba, gaztea ago
eta gogoa txit ero,
erraz azia, gaizki ezia
eta odoletan bero;
zintzotuko aiz Jose Frantziskok
mendean artu ezkerro,
probetxu gabe beti negarrez
or ibilliko aiz gero.
- 5/ – Jose Frantzisko artutakuan
ez det egingo negarrik,
kunplitu naia degu munduan
gusto orixen bakarrik;
amak eztigu galeraziko,
zertan ari da alperrik?
Borondateko gauza da eta
ezta egingo okerrik.

- 6/ – Mutill ederra ikusi eta
engañatu ez adilla,
alper gaiztoa artzen duena
ezten irtengo abilla;
andrearentzat obeago den
langille eta umilla,
izate ezkeru saiatu ari
orrelakuaren billa.
- 7/ – Alper-alperrik, ama, ari da,
egon diteke etsita,
besteren billa ez naiz juango
Jose Frantzisko utzita;
naiago nuke egingo balit
aldian sarri bisita,
obeagorik ez det izango
neskazartutzen asita.
- 8/ – Obligazio daduka amak
alaba konsejatzeko,
gazte ago ta esaten diñet
presaka ez ibiltzeko;
estuasuna zerekin daukan
gizon alperra artzeko?
Obeagoak izango ditun
oraindikan ezkontzeko.

- 9/ – Monja juanda ez det bizi nai
konbentuetan sartuta,
bokazioa ezkonduzteko
daukat barrenen sortuta;
estimazio txarrak ditugu
emakumiak zartuta,
biar bañan gaur naiago nuke
bat banengoke artuta.²
- 10/ – Nik ezkongai aplikatuko
niken iretzat bat ona:
ezagutzen den Karlosen seme,
Pio izena duana;
dotia badin ta zintzua den,
etorriko den gugana,
ori zeukanat gure moduko
begiaz jotzen nuana.
- 11/ – Ama nerea, erotu al da?
Ez nazala persegitu,
ain gizon bel da txarrakin (*sic*)
ez degu bear gelditu;
famiaren obligazioz
ark ezin dezake kunplitu,
ura neretzat dabillenikan
ere ez det nai aditu.

² Esku-idatziak: *bat banengo artuta*.

- 12/ – Konsejatuko aut biotzetik,
alaba Josefa Antoni,
gizon alper ta jokularia ³
etxian ezta komeni;
familiarako eskandalorik
ez dezanala ipini,
utzi biar den Jose Frantzisko
eta segi Pio oni.
- 13/ – Ama neria, ez det artuko
lena utzita bestia, ⁴
begi gorri ta anka xabala,
eskaseneko trastia;
aldamenian orrelakorik
ez nuke nai ikustia,
Jose Frantzisko artuko det nik,
ederra eta gaztia.
- 14/ – Nere alaba, kontentatzen aiz
edertasun utsarekin,
alperra den ta jokularia ⁵
biziyo geiagorekin;
irabazirik etzekarren da
gastu aundia berekin,
jipoi ederra maiz badadukan
ezkontzen baaiz arrekin.

³ Esku-idatziak: *gizon alperra ta jokularia*.

⁴ Esku-idatziak: *besterik*.

⁵ Esku-idatziak: *alperra den eta jokularia*.

15/ – Jose Frantziskok ez nau ni joko,
ondo gera konponduko,
ez duanian ezin gastatu,
eztu ere galduko;
premiak lana eragingo du,
bearragatik elduko,
beste tatxarik ezpadakuka
pozikan naiz ezkonduko.

16/ – Nere alaba, gizon gaiztoa
ez artu ere kaltean,
diruduna ta zintzoari bai
aukera dagon artean;
Pio ala den da bazetorren
urrengo gaben batean,
apari ona ipiñi eta
konforme jarri gaitean. ⁶

17/ – Ostikoren bat emango diot
etortzen bada Piori,
txori izutzen ipintzen duen
aietakua diruri;
bat bear eta aukera egon,
ez det artuko nik ori,
galtzak bai eta gizonikan ez
etzat gustatutzen neri.

⁶ Esku-idatziak: *batian* eta *gaitian* azken bi puntuak.

18/ – Jose Frantzisko gaiztoa zegon,
orain jendeak dionez,
ezkontza txarra egin bear den,
bai, amak derizkionez;
denbora juanda mudatuko zan
bañan probetxurik egon ez,
arro ta bero or abil bañan
ase bear den gizonez.

19/ – Ama, zuk ere etzenduke, ez,
Pio artuko senartzat,
ta zertarako orrelakua
neri eskañi bear zat?
Belar onduan joko det sarri
baldin allegatzen bazat,
endredatuta gizona falta
neri gustatuko etzat.

20/ – Nik alegiña egin det baña
alaba ezin mudatu,
mutil orrekin orrenbesteraño
aizen enamoratu?
Damutu eta aurki negarrez,
orretan ezin dudatu,
beren gustua kunpri bezea, (sic)
geigo ezin apuratu.

21/ – Jose Frantzisko, ezkondutzero
atoz agudo nerekin,
pozez zaude zu nereganako
ta ni kontentuz zurekin;
bizitza ona gustoa da ta
nori zer dio orrekin?
Jaunak digula suerte on bat
izateko alkarrekin.

Bertso auek eskuz idatzita arkitu ditugu,
Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza*
zanaren bilduman.

Dударик gabe, berak bertso-paperen ba-
tetik kopiatuko zituan, paper ori orain arte
beintzat gure eskuetaraiño iritxi ez bada
ere.

Sail onek eta onen aurrekoak, gaia ez-
ezik, beste gauza asko ere oso antzekoak
dituzte. Ez al da egille bera izango?

NESKATXA BATEK BERE AMARI

- 1/ Neskatxa batek bere amari eman dio infernu aundiya: bailera juateko jartzeko ari ondo aurreko titiya.

- 2/ – Baile ortatik ekarriko den deabruan batzar gaiztua, mutil gaztiak berotzen ditun ala ikusita kolkua.

- 3/ Mutil ori etzaidan gustatzen, begiya zeukan faltsua, nundik arrapauko ibilliko den ik daukan dote osua.

- 4/ – Mutil ori oso formala da, ama, eztio igertzen, berorrek esan duen dotia oindik eztit pretenditzen.

5/ Nere alaba deskolorida
suaren onduan zeguan,
eta nik ere galdetu niyon
ala egoteko zer zuan.

6/ – Ama neria, autsi didate
gonaren meriñakia.
– Amaika bider esan oi diñet:
Zori gaiztoko bailia!

Bertso auek, Irun'en jaio ta Plazentzi'n
bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zana-
ren bilduman arkitu ditugu.

Bearbada, bertso geiago izango ziran.

Emen ere, ama ta alaba alkar-izketan
jarduten dira, aurreko sailletan bezela.

AMA ETA ALABA

- 1/ – Amak ezkondu ninduben
amabost urtetan; (*bis*)
senarrak geixiago:
larogei nonbait an;
eta ni neskatilla gazte,
nola nindeke izan? (*bis*)

- 2/ – Neska, ixilikan ago,
aberatsa den ori; (*bis*)
pazientziyan pasa itzan
urte bat edo bi,
laister ilko den zarra eta
biziko aiz ongi. (*bis*)

- 3/ – Ama, alperrikan ari da
izketa moduan; (*bis*)
egun bat pasatzeko
bizitzen munduan,
ez det nik agure zarrikan
nai nere onduan. (*bis*)

4/ – Neska, egin zan amaren
esana berela; (*bis*)
izango aiz ederki
markesa bezela,
ez ariñela izan bada
orlako ustela. (*bis*)

5/ – Ama, nola nai du ori
gogoz egitia? (*bis*)
Beste gauzatxo bat det
nik borondatia:
diru gabea naiago det
senarra gaztia. (*bis*)

6/ – Neska, etzanala artu
dirurik gabia; (*bis*)
bestela izango den
naiko lanbidia,
txorakeri denak utzita
artzan aguria. (*bis*)

Ama ta alabaren arteko beste alkarriz-
keta au, Etxeberria eta Gimon'en *Ecos de Vasconia* kanta-bildumatik, 56'garren zen-
bakitik, artu degu.

Doiñua ere bertan arki dezake irakur-
leak, bai kanturako ta bai pianorako.

Bertso auek, seguru aski, inprentatu eta paperetan zabalduko ziran, gure eskueta-
raino alerik iritxi ez bada ere. Eta, dudarik
gabe, bertso geiago izango ziran.

Eskuz idatzita, toki batean baiño geia-
gotan arkitu ditugu. Adibidez: Aita Plazido
Mujika zanaren kuadernotxo batean; Urda-
zubi'ko Migel Sagastibelza'ren bilduman.

Periodiko-puska batean ere bai, zein
periodiko dan ez badakigu ere. Baiñan ez
dute aitatzerik merezi duan aldaketarik.

* * *

Imp. Macazaga.- Rentería moldiztegian
argitara emandako paper batean, sail onta-
ko bost bertso arkitu ditugu. Oietako bi,
Etxeberria ta Gimón'en 1 eta 2'garrena,
naiko aldatuta; eta besteak berriak. Danak
jarriko ditugu emen:

- 1/ Amak ezkondu niñuen
amabost urtekin; (*bis*)
senarrak bazituen
larogei berekin,
eta ni neskatilla gaztia
agure zarrakin. (*bis*)

2/ Ezkon giñaren gabian
juan giñan oiera; *(bis)*
senarra jarri zitzaidan
atzekuaz aurrera,
eta ni neskatilla gaztia,
nola pasa gaba? *(bis)*

4/ – Neska, ixilikan ago,
aberatsa da ori; *(bis)*
pazientzian eramaitzan
urte bat edo bi,
laister ilko den ori ta
biziko aiz ongi. *(bis)*

3/ Gaba pasa zan eta
urrengo goizian, *(bis)*
«Egun on Jaungoikuak»
amak galdetzian:
– Nik senarra badet baña
gustorik ez etxian. *(bis)*.

5/ – Diabruak eraman dezala
interesatua; *(bis)*
nik orain naio det
gazte sasoikua,
ogei urtekua eta
nere gustokua. *(bis)*

Tolosa'ko Jesus Elozegi zanaren kuaderno batean ere arkitu ditugu bertso auek. Berak nundik artu dituan, onela adierazten du: «Nere aitaren kuadernotik, 1894».

Zazpi bertso ditu. Etxeberria ta Gimon'ek dauzkaten 1, 2, 4, 5 eta 6'garrena, aitatzerik merezi ez duten zenbait aldaketa-rekin; Makazaga'ren paperean dagoan 5'garrena, eta beste au:

– Ama nik zertarako det
agure zar ori? (*bis*)
Artzen badet anketik
botako det sarri.
Ama, nik zertarako det
agure zar ori? (*bis*)

* * *

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 4'garren zenbakian, Zugaztietako Juliana Aurrekoetxea'ri jasota, lau bertso ditu: Makazaga'ren 1 eta 5'garrena; Etxeberrian eta Gimon'en 2'garrena; eta Elozegi'ren beste bertso ori.

Doiñua ere badu.

* * *

Tolosa'ko Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, kuaderno batean, bost bertso arkitu ditugu: Etxeberria ta Gimon'en 1 eta 2'garrena; Makazaga'ren 5'garrena; eta beste bi auek:

Esposatutako gabian
juan giñen oiera; (*bis*)
senarrak eman zidan
atzeko aldia,
ni, neskatilla gazte,
txokora begira.

Ondikan biramunian
juan giñen bordera,
aitaren bordera:
– Egun on Jaungoikuak,
aita, zuretzako;
nik senarra badet bañan
ez det ezertako. (*bis*)

Itxura danez, bertso-sail luzetxoa izango zan au. Bertso geiago zituana, alegia. Eta, seguru aski, bertso-paperetan zabalduko zana. Baiña paper ori galdua da. Ez degu guk beintzat ezagutzen. Orregatik, jendearen aotik jasotako puska oiek baizik ezin eskeñi dizkiogu irakurleari.

* * *

Ama eta alabaren arteko beste alkarrizketa bat; obeto esateko, beste alkarrizketa baten puska batzuk, beren doiñuekin, Azkue'ren *Cancionero popular vasco* bilduman

arquituko ditu irakurleak, 814, 815, 816 eta 818 zenbakietan, Markina'n, Ermua'n, Baraibar'en eta Eraso'n bilduta.

Beste alkarrizketa baten puskak, doiñu eta guzi noski, Azkue'ren bildumako 605 eta 606 zenbakietan ditu irakurleak, Hazparne'n eta Baxenabarra'n bilduta.

Ikusten denez, alkarrizketa oiek modan egon ziran gure artean garai batean.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Ezkontzarekiñ nola nabillen
bear nuke deklaratu,
bertso politak itzgai oiekiñ
nai nituzke preparatu;
jakiñ nai duanak zer moduz naizen
oraintxe erreparatu,
gazte jendea dibertitzeko
modua nai det paratu.

- 2/ Neska gaxoak penatzen geunden:
soldadu mutil guziak,
pakeak egiñ dituanari
eskerrak eta graziak;
galaiez oraiñ nun-nai dauzkagu
alako abundantziak,
ia etsian nengoan baño
baditut komenentziak.

- 3/ Urteak ere askotxo eta
pasa det zenbat inbiri,
ezkondutzeko zaletua ta
norekiñ etzan agiri;
ori isillik gordetzen nuan,
eztiot esan iñori,
agindutzeko asmoa neukan
lenengo zetorrenari.
- 4/ Neregan beti pensatzen nuan:
Ai, ezkonduta banengo,
nik mutillari desgustorikan
ez nion naski emango;
bi aldiz neri galdetzen iñork
lanik etzuan izango,
galtzak soñean zituanari
ezetz ez nion esango.
- 5/ Lengo kontuak juan ziraden,
au genduke funtzioa,
pretendienteak baditut eta
oraiñ ostentazioa;
aukera ala dagoanean
askoren kondizioa:
onena zein dan ezagutzeko
artzea espazioa.

6/ Len bat ezinda oraiñ aukera,
egunak diferenteak,
orain badatoz pretendienteak
mutillak balienteak;
bañan dirua gutxi daukate,
ni bezela arloteak,
eta gañera bildurra daukat
ote diran tunanteak.

7/ Soldaruzkatik etorri eta
askok nai dute ezkondu,
baña dirurik ez dutenakiñ
ondo eziñ naiz konpondu;
mutill zintzoa ta aberatsa
Pilipak deseaten du,
egun batzuek juanagati
utsa modu au bagendu.

8/ Gustokoa eziñ, txarrari muziñ,
ai au mundu zelebrea,
alde batera poza dadukat,
bestera pesalunbrea:
pamilian lan izango dala
artutzen badet pobrea,
etxean gauza palta danean
joko duala andrea.

- 9/ Ni naiz Maria ezkontutzeko
deseosoa naizena,
leku askotan korrituzen det,
Felipa daukat izena;
governatuko nuke ederki
baldiñ baneuka gizona,
ea, galaia, arrima zaitez,
diru asko daukazuna.
- 10/ Tratoan ere korritua naiz
ta ikasia lanean,
koziñen ere gustosoa txit
gauza izaten danean;
gizona ondo gobernatzeko
alkantzatzen dedanean,
estimatua izango nuke
baneuka aldamenan.
- 11/ Senarrarekiñ deseatzten det
alkar maite izatea,
ark kariñoa neregana ta
nik ari borondatea;
onena degu alkarri gusto
al badegu ematea,
bizitza ona gusto dezuna
nigana etorri zaitea.

- 12/ Diru asko ta konduta ona
baldiñ badauzka berekiñ,
beartzen banau, eskusa bage
ezkonduko naiz erekiñ;
eta bera ere ez litzateke
gaizki izango nerekiñ,
amen, onela gerta dedilla
juntatzea norbaitekiñ.

Bertso auek, *Tolosa*: – *Imprenta de la Viuda de Mendizabal* moldiztegian inprentatu ziran paperetan. Bertso-paper oietako bat, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman arkitu degu.

Neska bat, «ezkondutzeko zaletua ta norekiñ etzan agiri». Mutil guziak soldadu baitzeuden. Pakea egin da, ordea, eta aukera ederra etorri zaio. «Baña dirurik ez dutenakiñ ondo eziñ naiz konpondu» esaten digu. «Mutill zintzoa ta aberatsa» naidu.

Urterik esaten ez da eta pake egin berri orrek zerbait somatzeko bide emango digu. Mutil guziak soldadu bazeuden, etzan gerra txiki bat izango. Adibidez, Afrika'koa: 1859-1860. Gure iritzirako, karlisten bigarrena izango da. Eta gerra au 1876'an bukatu baitzan, andik denbora asko gabe jarritako bertsoak izango dira.

Ain zuzen, *Viuda de Mendizabal* izenarekin, oker ez bagaude beintzat, 1840'tik 1877'raiño ezagutu zan Tolosa'ko moldiztegi ori.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Emaztea ta bost alabak nik
zer familia daukedan,
gazte jendea sasoikoa txit,
salgai daduzkat aukeran;
presomituak modu batera,
nor gustatutzen ote dan?
Kondizioak zer daduzkaten
jarriko ditut paperean.

- 2/ Gure alabak amak emanak
daduzkate lezioak,
ponpa, lujo ta banidadean
oien presomizioak;
lendabiziko klasea nai ta
allegatzen funtzioak,
errentak baño aundiagoak
daude ostentazioak.

- 3/ Zortzi etxe guk baginituen
ezkondu giñadenean,
oraindik ere saldu bageak,
bestela ia janean;
zeñek emana baldiñ balego
billa gabilz geienean,
soñak berriak agudo dira
dirurikan degunean.
- 4/ Gona luzeak arrastaka ta
tontor aundiak buruan,
nere alabai gustatzen zaie
modak dabiltzen moduan;
eziñ sufritu prinzipalago
dabilenik inguruan,
mundu onetan berak nai dute
aundieneko graduan.
- 5/ Nere alabak bat badaukate
illeak adornatzeko,
eta sastre bat ezta geiegi
konpondu eta josteko;
kriara ona komeni zaie
garbitu eta jazteko,
orduantxe txit poliki daude
galai batek ikusteko.

6/ Beti arropak jartzen dituzte
moda berrian josita,
paseorako prestatzen dira
aiek poliki jantzita;
eta orduan sarritan egiñ
ispilluari bisita,
konsolatutzen diradelako
an ederki ikusita.

7/ Gure alabak ondo jarrita
dakie paseatutzen,
ibillitxo bat egiñ artean
eztira sosegatutzen;
eta lagunak prinzipalenak
dituzte deseatutzen,
bajuarekiñ tratatutzea
asko dira lotsatutzen.

8/ Paseatzeko abanikua
nai dute esku batean,
euria ero bero bildurrez
goardasola bestean;
euskaraz eta naiz erderaz
itzegiñ lagun artean,
konde-alabak baño aundigo
dirade beren ustean.

- 9/ Ogei eta sei urtekoa da
alaba Ines zarrena,
bi gutxiago dauzkana berriz
Josefa degu urrena;
ogei eta bi dauzkana dago
Teresa irugarrena,
ogeikoa Joana, emezortzian Ana,
au danetan ederrena.
- 10/ Orra alabak artzeko iñork
badauka borondaterik,
etxetik ondo juanak baleude
ez litzateke kalterik;
aberatsikan baldin badator
ezta itxiko aterik,
dama ederrak badaude baño
aitak eztauka doterik.
- 11/ Nere alabak edertasunez
ez dute beren parerik,
alakoa bear duanarentzat
iñun eztago oberik;
ondratutzea tokatzen zaie
banu abilidadarik,
izango al dira, naiz ez dukeak,
konde-sembleak bederik.

- 12/ Damak ederrak berak batetik,
bestetik ondo jantziak,
oien deseoa jartzeagatik
aberats jende guziak;
ezkondutzeko egiñ naiean
gabiltza dilijentziak,
mundu onetan serbitutzeko
gustora komenentziak.
- 13/ Andre ederra beste gauzarik
falta eztaukanarentzat,
nere alabak baña oberik
dala iduritzen etzat;
pretendiente orrelakorik
baldiñ allegatzen bazat,
danan aukera jarriko diot
nik estrañekoarentzat.
- 14/ Inazio da nere izena,
apelidua Gerriko,
garbi itzegiñ nai det egiaz,
eztet gezurrik jarriko;
pretendienteak gustokoa zeñ dan
berak dio igarriko,
aita-alabak ementxe gaude
nor ote dan etorriko.

15/ Alabak bentan papera saltzen
ari gera pregonari,
dama ederrak ofrezituaz
galai aberats onari;
bear duanak eska bizaio
aita eta naiz amari,
orra aditzen franko eman nik
gustatutzen zaionari.

Bertso-paperrtso-papera, *Imprenta de la Viuda de Mendizabal* moldiztegian argitara emana.

Bi tokitan arkitu degu. Bata, Paris'ko Liburutegi Nazionalean, D'Abbadie zanaren paperetan. Moldiztegi-izenaren azpian, eskuz idatzita, onela dio: *Tolosa: 1876*. Bestea, Chicago'ko *New Library'n*, Bonaparte zanaren paperetan. Onek ere, eskuz idatzia, izenburuaren gaiñean, onela dio: *Tolosa-n, 1876-n*.

Erri-izen eta urte orrek zer esan naiko ote dute? Seguruena, guk uste, ori idatzi zuanak bertso-papera noiz eta nun bereganatu zuan.

Bertsoen egillea edo jarri-arazlea, Inazio Gerriko degu, amalaugarren bertsoak dionez. Baiña gizon ori nor izan zan ez dakigu.

* * *

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auek, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman. Onek ere eskuratuko zuan moldiztegian inprentatutako bertso-papera, eta andik kopiatu.

* * *

Bertso-papera, *Eibar-en, Orue-en echian* argitara emana, Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Onek amabi bertso ditu: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10, 13, 15 eta 14'garrena, orden orretan. Falta diranak: 7, 11 eta 12'garrena.

Aldaketak: 1/4: salgei disut dauquedan; 1/5: erromerian plantatzen dira; 1/6: nor gustatzen ete dan; 2/1: Nere alabac amac emonac; 2/4: orgullosco bisuak; 2/6: lenda bisico clasian nay ta; 2/7: errenta baño andiaguac; 3/7: soiña berriac aguro dira; 3/8: diruri an daudenien; 5/2: iliac adornatzeco; 5/3: enda sastre bat esta gueiegui; 5/6: compondu eta josteco; 8/7: conde alaba baño andiago; 10/1: Orra alabak iñok artzeco; 10/3: echetic ondo juanac balira; 10/7: dama ederrac badausco baña; 13/2: falta estuana-rentzat; 13/7: danen auqueran jarriko diot; 13/7: danen auqueran jarriko diot; 13/8: nic estreñacuarentzat; 15/1: Aite emen da papelac saltzen; 15/2: alegre ta prebonari.

«BARRUNDIK NAGO NEKEAN...»

1/ Barrundik nago nekean,
ez sosegu ta pakean,
orra zer lan dadukean:¹
andrea palta, esango det nik
nolakoa nai nukean,
ta ni nork nai nindukean
eta nork gusto lukean,
tratatu nairik trukean.

2/ Andregaiaren neurria
gorputzez nai det larria,
mardul da musu gorria;
buruan berriz tontor aundia,
soñekoa maiz berria,
arreglaturik gerria,
oraingo moda berria,
nere konsolagarria.

¹ Aitzol'enean: *daukean*.

- 3/ Andrezalea naiz nerez,
probetxokua nai berez,
eta ederra itxurez;
oiek goguan oi dauzkadala
nabil egunaz ta gauzez;
ona bai abilidadez,
ta sasoikua edadez,
nezkazartutakorik ez.
- 4/ Andrea billatutzean
maite bai nik biotzean,
ez naiz kariño otzean;
oiek pentsatzen beti or nabil
egunaz eta arratsean;
estimatuko det nik etxean,
paseaturik kotxean,
modua dan bakoitzean.
- 5/ Ni jarri andrearentzat
ta andrea berriz neretzat,
trata-bidea deritzat;
ezkondu eta bizitutzeko
orra biok alkarrentzat;
nik deseo au det beintzat,
iñor gustatutzen bazat,
norbait etorriko al zat.

6/ Beti andrea goguan
ta eztakit nun daguan,
... ..;²
klase altuan jarri nai nuke
baldin baneuka onduan,
neu baño goraxeguan,
besoz-beso paseuan,
ala nago desiuan.

7/ Nik badadukat zer egin,
andrea ondo bai nerekin,
ta ni ere bai arekin;
bizitza on bat pasako degu
mundu ontan alkarrekin;
eta ondasunarekin
nago osasunarekin,
gusto guzia gerekin.

8/ Joakin da nere izena,
modu onetan naizena,
au da izketa zuzena;
egia garbi esango det nik
darabilkian gauzena:
senar billa zabiltzena,
arrima zaitez nigana,
egin det dezakedana.

² *Aitzol'*enean lerro au falta.

- 9/ Ez naiz, ez, ni arlotea,
etxetik badet dotea,
nere senide-parteia;
eta gañera irabazita
kopre bat diruz betea;
neroni balientea,
ederra eta gaztea,
ni artzen nauenak suertea.
- 10/ Artu nai det emaztea,
ederra eta gaztea,
nerau bezela bestea,
konsuelotan pasa dezagun
gure bizitza tristea;
ala dadukat ustea,
mudantza bat ikustea,
esperantzetan gaztea.³
- 11/ Ai zer poza nik gaurkuan:
ala ezkonduakuan,
paseatu naiz kanpuan,
andre ta biok besoz-beso
gerok nai degun lekuan,
abanikua eskuan,
relojua poltxikuan,
urre-katea kolkuan.

³ Gaztea bi aldiz punturako. Bigarrenko ontan ez al da astea edo olako zerbait izango?

12/ Utsegiteak supritu
eta gustoak kunplitu,
komentziak serbitu;
nik nai dên arte nere andreak
oriek izango ditu;
nun-nai lekuan bizitu,
parajia eskojitu,
nik ara ere segitu.

13/ Mantenuan da jantzian
bere gusto guzian ⁴
ta diruz abundantzian;
festa aundirikan izaten bada
Españia'n da Frantzia'n,
trenian komentzian,
naiago badu kotxian,
ez lizundutzen etxian.

14/ Ezkontzerako lenbizi
nai nuke adierazi
nola bear degun bizi:
ondorengorik izaten bada
ori iñudeaz azi,
neke-trabajuak utzi,
ondo jan, obeto jantzi,
oietan biegu bizi.

⁴ Bearbada, emen *beraren* bearako luke. Neurria bai orrela osatu beintzat.

Amalu bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bildumatik artuak ditugu. Lazkao'ko Gorrotxategi'tar Euloji'k bialdu zizkion, 1935 urtean, oar onekin: «Olabe-
rria'ko Zubeldia'tar Ramon 66 urtekoari ar-
tua.»

Irugarren bertsoaren berdintsua, Xenpe-
larren liburuan argitaratu genduan: *Auspoa*
88-89-90, 277 orri-aldean.

* * *

Lekarotz'en, Aita Donosti zanaren bildu-
man, sail ontako iru bertso arkitu ditugu: 9,
14 eta 8'garrena, orden orretan.

Aldaketak: 8/2: au da izketa zuzena; 8/3: modu
onetan naizena; 8/4: egiak garbi esango ditut; 8/5:
pasatutako gauzena; 8/8: egingo det aal dudana; 9/1:
Nerau ez naiz arlotea; 9/6: nerau balientia; 9/8:
artzen nauenak suertia; 14/1: gero nola behar den
bizi; 14/3: eskolatuaz lenbizi; 14/5: aik iñudiakin azi;
14/6: falta; 14/7: ondo jan ta obeto jantzi; 14/8: falta.

BERTSO BERRIYAK

- 1/ – Kantatzera barrengo
gustuak narama,
alabatzera nere
biyotzeko dama.
Gogoratzen al zaizu
lenago esana?
Errespuesta billa
nator zuregana.
- 2/ – Eperretan zabilta
mendiyaren jiran,
zerbaiten esperantza
al daukazu nigan?
Gero pentsatuko det
nola gomeni dan,
burutik juana daukat
zer esan zenidan.

3/ – Manifestatu nizun,
kariño izanik,
zurekin ezkondata
nola nai nuen nik;
bestela gustorikan
ez daukat iñondik,
betiko esposatzat
artu gabetanik.

4/ – Tratu ori zerratzen
bear degu asi,
arriska la fortuna
galdu edo irabazi;
nerekin ezkondata
nai badezu bizi,
dotia zenbat dezun
esan lendabizi.

5/ – Nere dotia zenbat
daguén jakiña:
sei ontzako ta oia
amonak egiña,
kofre bat eta maia
material fiña,
zu oiekin kontentu
izango baziña.

6/ – Amonak oia eta
sei ontza etxetik;
zedorrek biziyorik
dezun biyotzetik,
ori galdetzen dizut
lenengo itzetik,
gero ibilli gabe
auzitan atzetik.

7/ – Nere biziyua da
dantzan ibiltzeko,
ez daukat jokurako
eta orditzeko;
eztari abilla naiz
eperrak iltzeko,
irabazi ona da
txanponak biltzeko.

8/ – Ekusiyagatikan
erbi edo eper,
tirua juan liteke
pultsutikan oker;
beste ofiziyorik
ez badezu ezer,
gure bizi-modua
galduko da laister.

9/ – Ez bazaizu gustatzen
gizon eztariya,
nik ere zertako det
andre dendariya?
Irabazi gutxi eta
lujua aundiya,
len bañon okerrago
utzi nazu iya.

10/ – Andregaia burlatzen
lujuaren kontra,
obe dezu ixildu,
aserre nago-ta;¹
ez neri orrelako
bokalbererik bota, (*sic*)
bizkarra autsiko dizut
kanarekin jota.

11/ – Zapata ta galtzerdi,
mantoia eta gonak,
meriñake ta gonak
badituzu onak;
dendari orguyosa
zinta dariyonak,
mendian egon biar
zurekin gizonak.

¹ Bertso-paperak: *nago eta*.

12/ – Zure amoriyua
aizia bezela,
banakiyen zierto
mudatuko zela;
naitasun gutxirekin
kariño epela,
bururik eztuenak
zertako txapela?

13/ – Dendariyaren lana
datorrena josi,
puntara aundiyak eta
gutxi irabazi;
gizonak galtzak eta
andria nagusi,
ala baño mutil zar
naiago det bizi.

14/ – Orra amalau bertso
kantatzeko berdin,
gure kasua nola dan
deklaratu dedin;
gogorik ez badezu
fuertzan ez eragin,²
nigatik libre zera
nai dezuna egin.

² Bertso-paperak: *erakin*.

Oraingo bertso auek, *Imp. de J. Díaz.- Irún* moldiztegian argitara emandako bertso-paper batean arkitu ditugu.

Paper ori, Luis Mitxelena'ren bitartez, Oiartzun'go baserri batetik etorri zitzaigun. Gregorio Mujika zanaren bilduman ere badago.

Tolosa'ko Estanislao Urruzola'ren kuaernoan ere badaude bertso auek, eskuz idatzita ordea. Aldaketak, ondoren emango ditugu.

Astigarraga'n, 1958 udaran, Txomin San Sebastian *Txadonzaia* zanaren aotik ere jaso genituan. Onen aldaketak ere, gerorako uzten ditugu. Baiña argibide gogoangarri au ere berak esanda idatzi genduan:

«Domingo San Sebastian Astigarraga'ko sakristauak esana: Bere amari, Manuela Murua'ri, ikasiak. Orain larogei urte paseak bertso auek kantatzen zirala, amaren gazte-denboran».

Izan ere, Irún'go moldiztegi ori ez da ain zaarra. Eta bertsoak, gure iritzirako beintzat, zaar usaia dute. Batek bertso bat eta besteak urrena, alkar-izketako teknika ori alegia, antziñako bertsolaritzak oso be rea zuan, bai emen eta bai Bidasoa'z beste aldean geroago galtzera egin bazuan ere.

Orregatik, guk ala uste beintzat, *Díaz*

moldiztegi orrek zaarragoko beste paperen bati kopiatuko zion. Ain zuzen, irakurleak gero ikusiko duanez, Txomin San Sebastian'ek, Díaz'en paperak ez duan beste bertso bat eman zigun.

* * *

Tolosa'ko Estanislao Urruzola'ren aldaketak: 1/7: erantzunaren billa; 3/7: betiko emaztetzat; 4/4: galdu irabazi; 6/2: sei ontzako etxetik; 9/1: Zedorrek ez dezu nai; 10/6: bokalkerik esan; 14/3: gure gauza nola dan; 14/5: gogorik ez duenai. Eta fonetismo asko ere gramatikaratu dira.

Astigarraga'ko Txomin San Sebastian *Txadonzaia* zanak etzizkigun 1 eta 14'garren bertsoa eman, eta besteak beste orden ontan esan zituan: 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 13, 12 eta 11'garrena.

Aldaketak: 2/2: mendietan jiran; 3/1: Adierazo nizun; 3/7: betiko emaztetzat; 4/2: obe degu asi; 4/4: galdu irabazi; 6/8: auziyan atzetik; 10/6: bokablorik bota; 11/1: Zapata galtzerdiyak; 11/2: mantoi eta gonak; 13/3: lujuan asko biar; 13/7: orla baño mutil zar.

Eta beste bertso berri au ere bai, mutillaren aotik.

Dotia zenbat nuen
esan nizun garbi,
zerori ziñan ori
jakiteko larri;
ondo jakindu dezu
orain nere berri,
len ere obe nuen
ez banitz etorri.

«PUBLIKATU NAI NUKE...»

1/ Publikatu nai nuke
zer moduz nagoan,
parra eragingo det
zerbait oraingoan:
ezkongaien palta det,
beti au gogoan,
orra zer bizimodu
nerekin dagoan.

2/ apellidua,
... .. izena,
ni naiz modu onetan
gertatzen naizena;
senarra artu banu
al nuan goizena,
ez nuan edukiko
gaur daukean pena.

3/ Gaztetxorik ezkontza
bat nuen tratatu,
geroko utzi eta
ez errematatu;
mutill paltsoa berriz
zitzaidan gertatu,
esperantza eduki
ta gero paltatu.

4/ Beste galai bat nuan
gero agindua,
soldaru eramanda
ura an galdua;
guzietati pena,
au bizimodua,
ondo neketakoa
daramat mundua.

5/ Majo-gairik ezpadet
il bear det aurki,
nere penak zer diran
iñork eztakizki;
medikuak ez gaitu
sendatuko noski,
... ..
... ..

6/ Maria Santisima,
zer da bizitza au?
Lorik ezin egin det
ez egun da ez gau,
sarri ilko naiz iñork
artutzen ezpanau,
... ..
... ..

7/ Naturalezak dakar
bere jenioa,
ezkondutzeko badet
nik oponioa,
ondo konserbatzeko
matrimonioa,
baña norekin palta,
au engañioa!

Zazpi bertso auek ere, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bildumatik artuak dira. Lazkao'ko Gorrotxategi'tar Eulojik bialdu zizkion, 1935 urtean, oar onekin:

«Olaberria'ko Olanan'dar Jose Bautista, 67 urteko jaunari jaso.»

Aurreko saillaren lenengo bertsoa eta emengo lenengoa berdiñak dira, aldaketa xixtrin batzuk izan ezik. Orregatik jarri ditugu sail auek alkarren segiran. Ala ere, beste bertso guziak desberdiñak dira.

Emengo bostgarren eta seigarren bertsoak ere puska falta dute. Olanan jaun ori etzan oroituko.

Bañan bigarrenaren utsuneak, neskaren izen-abizenak kendu ditugulako dira.

Sail au ere, paperetan zabalduko zan.

Goiko izenburu ori, gerok erañtsia da, lenengo bertsoetik artuta.

EZKONGAIENTZAT KONDIZIYUAK

- 1/ Itzegin nai det neskatxa eta
mutil batzuen bizitzan,
bertso berriak jarriko ditut
zer estadutan dabiltzan;
gazte denboran eskandaluan,
zartuta parragarritzan,¹
gezurrak edo egiyak diran
begira nork zer deritzan.

- 2/ Lendabiziyan itzegingo det
mutil gaztian gañean,
al dezakean egokiyena,
ikusten diran añaen;
tripan ardua, zigarrua aban,
beti neskak mingañaen,
bolsa zimurra, fakultadia
... .. guztia soñaen.²

¹ Adurriaga'ren kuadernoan: *parragarritzat*.

² Ezin irakurri kuadernoak emen zer dion.

- 3/ Sudurrak ezin garbitu eta
orain dauden pantesiak,
bizar-tokira baño lenago
tabernara asiak;
billarrera ta kafeterira
bideak goiz ikasiak,
jokuan eta biziyuetan
biyotzeraño josiak.
- 4/ Gazte dirala ezkondu naia
izan ezkeru norekin,
bera ere norbait izan liteke
gustatzen dana oiekin;
badaude pozik jarritzekuak
beinguan esanarekin,
nolako Peru alako Mari
juntatutzeko alkarrekin.
- 5/ Badabiltz danak aurren zai edo
zerbait aitzeki artuta,
mutillen bistan iji ta aja
farrez aba zabalduta;
guraso pobren umeak asko,
ez dote eta ez konduta,
mundua baño naiago ia
baleureke ezkondata.

6/ Soldatarikan baldin badue
soñian ipiñi dana,
au edo ori falta duela
gabian juan amagana;
orrelakuak geienak dute
adiskide falso bana,
ezkondutzeko asmo aulakin,
itza alatsu emana.³

7/ Itzak emanda esposatutzen
ezpadirade aguro,
bitatik bati damutu eta
okasiyua seguro;
alkarri kantak ipiñitzeko
abiyatzen dira gero,
oien ezkontzak aitzenerako
badauka milla endredo.

8/ Orrelako bi ezkondutzia
fortunatutzen badira,
denbora asko pasa baño len
oso asarretzen dira;
aurrena itzez, urrena joka,
irugarrena partida,
modu orretan alkar utzita
igesi al dan tokira.

³ Adurriaga'ren kuadernoan: *itzak alatsu emanak*.

- 9/ Matrimonio santuak ez du
nunbait oberik merezi,
lenago ezin alkarganatu,
ezkondu eta igasi;
ume txar bat jaiotzen bada
gero ezin dute azi,
an egongo da gosiak eta
zarpa zar eta karraxi.
- 10/ Alkarrengana juntatuzian
orrelako arlotiak,
bizi-modua gogoz artzeko
faltan artzia dotiak;
alperrak ere aundiyak eta
biyak biziyozen betiak,
oien ezkontzak nola emango
ditu gero birtutiak?
- 11/ Abiyatutzen dirade gero
alkarren tatxak kontatzen,
fedeko itza bera danian
lan onek ez du faltatzen;
nork bere tatxak estali naia,
lagunarenak agertzen,
orra biyenak agertu eta
ez dira asko edertzen.

12/ Ala esaten dabil andria:
«Gaiztua daukat gizon au,
alperra da ta jokulariya,
orditu ta ni jotzen nau;
ordu bat onik ez dit ematen
ez egun eta ez gau,
triparentzako berak bear du
egiten duan alako lau.»

13/ Eta gizonak au esaten du:
«Alperrik nabil lanian,
andre alperra etxian daukat
zikiñak ia janian;
janetik ere ez dit ematen
joaten natzaionian,
zurruta egin naiago berak
arrapatzen duanian.»

14/ Eta gizonak: «Ez naiz juango ⁴
geiago andriagana,
pikara alper tunante ari
sartuko nioke labana;
laister joko det arren bistatik
Caracas edo Habana.»
Sarri alare dirurik gabe:
«Balego nork eramana!»

⁴ Adurriaga'ren kuadernoan: *Eta gizonak esan naiz juango.*

15/ Gazte denbora pikardiari
ala ematen bazaio,
zartutzerako amentatzen da
baldin uzten ez bazaio;
modu orretan dabillenari
enkarguz ari naizaio,
pikardiari azkenerako
likitsa utzi bezaio.

16/ Modu orretan allegatuak
banakak egongo dira,
ta alde xamar gaur dabiltzanak
ubari asko badira,
naiago nuke oiek entzunda
konbertituko balira;
bizitza ona desiatzen det,
orra eman despedira.

Bertso auek, Tolosa'ko Fakundo Adu-
rriaga *Besamotza* zanaren kuadernotik ditu-
gu. Izenburua ere, toki beretik artua. Egillea
nor dan ez da esaten. Bearbada, gure iritzi-
rako, Alzo'ko Imaz-edo izan diteke.

BERTSO BERRIYAK

1/ Notiziya polit bat
Tolosa'n det jakin,
zer nola pasatu dan
nobiyo-nobiyakin;
itzak batekin eta
tratubak bestiakin,
fiya zaitia gaurko
neskatx gaztiakin.

2/ Iru mutil zebiltzan
iru neskatxekin,
ezkontzeko asmuan
ustez alkarrekin;
nunbait juntatu dira
sobrero dunakin,
etzaiote gustatzen
jornaleruakin.

- 3/ Oriyetako batek
ditu iru nobiyo:
jornalerua bat eta
bi botikariyo;
pobriai despedida
eman omen diyo,
orain lebitadunak
segituko diyo.
- 4/ Zazpiyetan lanetik
dira ateratzen,
ez dute denbora asko
etxian pasatzen;
markes-alaben gisa
dabiltz pasiatzen,
etxian kutxare bat
ez dute garbitzen.
- 5/ Bost errial geiena
da oriyeen jornaia,
alare jazten dira
dukesak bezela;
pobriak erabiltzen
orrenbeste gala,
erozeñek badaki
eziñ leikiala.

6/ Pobria ezin izan
kaballero fiña,
lanian egin arren
bere alegiña;
despedida izango da
orreatatik egiña,
nunbait ez goralako
oientzako diña.

7/ Neskatxen pekatubak
ai dira azaltzen,
jendiak jakindu du
zer nola dabilten;
askori ezkontzeko
diyote agintzen,
azkenian ez badira
neska zar gelditzen.

8/ Postura onetan oiek
ibilli nai dute,
nobiyo askorekin
arturikan parte;
baño aurten kukubak
aldrebes jo'ioite,
guk ez degu izan nai
oien alkahuete.

- 9/ Beren ustez zebiltzan
dama oiek egoki,
baño jendiak begi
argiyak iduki;
esango lituzke bai
polliki-polliki
Plaza Beotibarrek,
izketan baleki.
- 10/ Biajatutzen ere
saiatutzen dira,
oñez nekatu gabe
trenan Donosti'ra;
allegatu nai dute
paraje guztira,
oiek jornal utsetik
egiten ez dira.
- 11/ Miseri aundiyak dauzka
munduban pobriak,
gu ere ez gerade
faltarik gabiak;
orain badituzute
gu baño obiak,
ez ditezela izan
dirurik gabiak.

12/ Orra euskeraz jarri
guk amabi bertso,
zuben aziyo onez
txokatuta oso;
kulpa gabiak penaz
egongo akaso,
kofradiyan ez danak
ez kandelik jaso.

Bertso-papera, *Impr. Baroja San Sebastian* moldiztegian argitaratua eta bertako Joakin Muñoz-Baroja jauna zanaren eskutik jaso.

Bertso-papera, *Imprenta de B. Valverde-Irún* moldiztegian argitaratua eta Gregorio Mujika zanaren bilduman agertua.

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegian argitaratua eta Alizo'ko Kaetano Lizarribar'en eskutik jaso.

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegian argitaratua eta Oxford'ko *Bodleyan Library*'n azaldua. Beste argitaraldi bat, naiz-eta etxe berekoa izan.

Bertso-papera, *Imp. de Pozo.- Fuenterrabía, 14* moldiztegian argitaratua eta Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman agertua.

Bertso paper auek ez dute aldaketarik alkarrekin.

Urrengo doñu au, berriz, Donosti'ko Lorentziona baserriko Maria Oiartzabal'ek kantatua da:



«...SENARRA NAI NUKE TA...»

1/ Publikatu nai nuke
zer moduz nagoan,
senarra nai nuke ta
ezkontza gogoan,
orra zer bizimodu
nerekin dagoan,

... ..

... ..

2/ Ezkongaiak baditut,
ez gustokorikan,
portuna billa egon
nai det oraindikan,

... ..

... ..

... ..

... ..

- 3/ Senar eskasarekin
bizitza tristia,
ona datorren arte
obe da uztia;
eder galanta nago,
sasoiko gaztia,
egokituko al zait
bat edo bestia.
- 4/ Ogei eta lau urte
edade jakiña,
illaje zoli eta
begiaz urdiña,
korputz eder galanta,
kolorea fiña,
mirabe ederra nago
Jainkuak egiña.
- 5/ Etorkizuna berriz
da ikustekoa,
baña lan da billatzen
nai ainbestekoa;
allegatutzen bazat
mutill.gustokoa,
ez nago ezkontzeko
sasoi gaiztokoa.

6/ Gustokoa deseo
nik nere partetik,
gauza ez dana bada
bego apartetik,

... ..

... ..

... ..

... ..

7/ Pakean igual egon
beste lau urtian,
mutill balientea
etorri artian,

... ..

... ..

... ..

... ..

8/ Ezkontza det gogoan
naiz egun da naiz gau,
etzait aztutzen bada
deseo dedan au;
apellidua ta
... .. naiz nerau,
orra zein naizen esan
iñork nai banau.

- 9/ Orra apeldua
eta bai izena,
esan det nolakua
nai detan gizona;
ez naiz leku batian
egoten naizena,
atoz pretenditzera
billa zabiltzena.
- 10/ Eztet nai triste eta
kopeta illuna:
azala legun eta
begi argi duna,
kariñosoa eta
al bait diruduna;
orrelakoxia det
gustoko laguna.
- 11/ Ametsetan iñoiz
gauetan gizona,
goizerako palta,
orra modu ona;
banoa Santo Kristo
Lezo'koengana,
eskatzera senarra
komeni zaidana.

12/ Ezpadatorkit neri
senargai onik,
neronek esango'iot
gusto dedanari;
ark agintzen ezpadit
beste geiagori,
billatuko al degu
palta degun ori.

13/ Matrimonio santua
nai errezibitu,
munduba ondo pasata
Jainkua serbitu,
itzez da obraz ala
nai det despeditu,
... ..
... ..

Bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zarenaren bildumatik ditugu, 1935'ean Lazkao'ko Gorrotxategi'tar Eulojik bialdutako mordoxkatik. Bertsoen ondoren onela esaten da: «Olaberria'ko Zubeldia'tar Ramon, 66 urtekoari artua.»

Bertso batzuek puska falta dute. Zubeldia orrek ez baitzituan guziak gogoan osorik edukiko.

Baiña zortzigarrenaren utsuneak ez dira ortik etorriak. Neskatxaren izen-abizenak ziran or. Oi degunez, iñoren lotsak ez berritzearren, kendu egin ditugu.

Bertso auek paperetan zabalduko ziran. Zubeldia orrek papera erosi eta bertsoak buruz ikasi. Ondoren, papera galdu eta jaun orrek buruan zituanak salbatu. Eta etzituanak, paperak bertsorik geiago ere izango baitzuan, aiek betiko itzali.

Izenburua gerok ezarria da, lenengo bertsoetik artuta.

Sail onek zer ikusirik badu 83'gn orri-aldeko saillarekin. Ango leenengo bertsoa eta emengo leenengoa antzekoak dira. Baita ango seigarrena eta emengo zortzigarrena.

Bi saillak bat bakarra ote dira, beraz? Edo bertso-jartzalle berak egiñak ote dira? Galdera oiei zer erantzun ez dakigu.

MARITXU MENDARO'KOARENTZAT

- 1/ Maritxu Mendaro'ko
neskatilla fiña,
burutikan ez balitz
pixka bat ariña.
Ai, Maritxu, Maritxu,
aiñ apaiña!
Zeñek txoratu zaitu
zu orrela adiña?

- 2/ Maritxu Mendaro'ko
illean birritan
Bilbao'ra joaten da
kolore gorritan.
Ai, Maritxu, Maritxu,
ez sarritan
deskuidatu ibiltzen
beste errietan.

- 3/ Neskatillak ez badauka
ona juizioa,
iñork ez dau edukiko
orren desioa.
Ai, Maritxu, Maritxu,
au lezioa!
Bakarrik izango dezu
desprezioa.
- 4/ Maritxu Mendaro'kok
gura luke artu
gizon on bat, balego
arentzako gertu.
Ai, Maritxu, Maritxu,
orra ugartu!
Uste zenduen bañan
len neskazartu.
- 5/ Maritxu Mendaro'ko
domeketan plazan
neskazartuta ere
bapo dabil dantzan.
Ai, Maritxu, Maritxu,
beti olgantzan!
Zure edertasuna
kakatara juan zan.

Bertso auek, Azpeiti'ko Loiola'tik ditugu, Aita J. I. Arana'ren bildumatik. *Aitzol'*en bilduman ere badaude, ta aldaketarik gabe egon ere. Kantatu, *Madalen Busturin'go* doiñuarekin egin ditezke. Ikusi: Etxeberria ta Gimón: *Ecos de Vasconia*, 63 zenbakian.

BERTSO BERRIAK EZKONGAIAREN GAÑIAN JARRIAK

1/ Orain kantu berri bat
biar det ipini,
neure eretxirako
txit dana konbeni:
ezkongaiak ezkontzaz
zer modutan asi,
kantuz al banezake
zerbait erakutsi.

2/ Zer modutan egin
ezkontzeko lanak,
ongi erabaki zitun
Kristo gure Jaunak;
alan agintzen digu
Eliza Ama Santak,
alperrik damuko du
deskuidatzen danak.

3/ Ez degu gutxi bidar
pulpitutik entzun,
ezkontza zer modutan ¹
egin biar degun;
Espiritu Santua,
arren, eidazu lagun,
gauza au esplikatzeke
konbeni dan modun.

4/ Ezkontz'au egiteko
ona ta garbiya,
preziso biar degu
Jaunaren graziya;
egin au logratzeke
alegin guztiya,
bitarteko arturik
Blrjiña Mariya.²

5/ Ongi errezibitzeko
sakramentu ori,
Jaungoikuaz konforme
biar degu jarri;
asmuak onak enda
animia garbi,
Jaungoikuak berak
agintzen du ori.

¹ Bertso-papera: *ezkontzak*.

² Bertso-paperak: *Maria*.

6/ Ezkongeiak, kontuan
nai zaituet ipini,
aberiak bezela,
etzaitezten ibili;
jakin baño lenago
gurasuen berri,
ezkondutzeko itzak
ez emon alkarri.

7/ Enkargatzen ditut
nik asko guraso,
umiari orretan
egiteko kaso;
ezkontza gaiztuak
dirala akaso,
munduan izaten da
naigaberik asko.

8/ Oztaz ikasi dute
mosua garbitzen,
euran buruz dabilta
ezkontzak egiten;
eztet ikusten baña
ala det aditzen,
oraingo-gazte asko
zer moduz dabilten.

- 9/ Kuidadua izan,
aitak eta amak,
errespetoz azitzen
seme ta alabak;
Jaunaren bildurrian
ongi bizi danak,
nekez egingo ditu
orrelango lanak.
- 10/ Animako artzaia
kura parrokoa,³
bere lekuan dauka
gure Jaungoikuak;
esplikatu garbiro
nork beren kontuak,
aditu eta egin
aren konsejuak.
- 11/ Iñor aurkitzen bada
bai onetan dudan,
parroko jaunagana
biar degu juan;
ark erakutsiko du
kosta bage duan,
kristauak ezkontzeko
zer egin bear duan.

³ Bertso-papera: *parrokoa*.

- 12/ Gaztia, badaukazu
ezkontzeko griña,
emandako itzetan
izan zaitez fiña;
albait konpritzera
egin alegiña,
gero izan ez dedin
sekulako miña.
- 13/ Munduan badirade
asko eskutari,
dakienak neskatxai
itz egiten polliki;
txoralda gaixuak
sinistu oieri,
zeinbat engañatzen dan
Jaungoikuak daki.
- 14/ Orain ikusten dira
asko begietan,
da partikularmente
erromerietan,
gau eta gaberdi
bide erdietan,
bekatu egiteko
peligro andietan.

15/ Mutil erdi mozkorrak
aguak beruak,
aien kontuak aditzen
neskatxa eruak;
nolakuak oi diran
orduko tratuak,
neuri esan dirade
eskarmentatuak.

16/ Zarrak ere badira
orretan maisuak,
Satanasen eskolan
estudiatuak,
gazteari emaiten
ejenplo gaiztuak;
gero pagatzen dute
inozente gaixuak.

17/ Jesukristok dio
Ebanjeliuan,⁴
begatu eragiten
duenak munduan,
errota-arri bat
loturik lepuan,
obe leukiala ondatu
betiko itxasuan.

⁴ Bertso-paperak: *Jesukristo eta Ebanjelioan.*

18/ Batekin itzak enda
bestekin kontuak,
ez du ori agintzen
gure Jaungoikuak;
barrundi saldu eta ⁵
kanpoko mosuak,
oiek izan oi dira
Judasen tratuak.

19/ Pobria jantzirikan
aberatsen klasen,
eroaren gisa dabil ⁶
bere burua saltzen;⁶
gañetikan jentia
dau gaizki esaten,
orren lujua ez da
errez konbertitzen.

20/ Pobre ta aberatsak
guztiak munduan,
erabili klase ori
dadukien moduan;
bizimodu santu bat
egizu munduan,
geru sartu nai bazu
betiko zeruan.

⁵ Bertso-paperak: *barruldi*.

⁶ Bertso-paperak: *beren*.

21/ Amodio garbia,
kariñua fiña,
ojala il artian
izango bagiña;
bitarteko arturik
Zeruko Erregiña,
alkar ondo estimatzen
egin alegiña.

Bertso-papera, *Imprenta y Librería de Elosu.- Durango*, Oxford'ko Bodleyan Library'tik.

Gregorio Mujika zanaren bilduman ere arkitu ditugu bertso auek.

Baita Gernika'ko Julio Bareño zanaren bilduman ere, makinaz idatzita. Baiña alda-ketarik gabe.

DONOSTIA'KO MANUELA

1/ Bost galai gazterekin
damatxo polit bat,
koplatutzeko bada
keja etorri zat;
neskatxak ditu kulpak,
nik ala deritzat,
dozen erdi majua
nai zuan beretzat.

2/ Lenbiziko majua
zuben Inaziyo,
neskatxak ezkonduko
dala omen diyo;
mutillak baiezkorik
esaten ez diyo,
esperantza utsak ere
ez baitu baliyo.

- 3/ Inazio utzi eta
gero Martiñekin,
mandatu egin dio
modu onarekin:
«Ezkonduko gerade
biok alkarrekin,
libratuta banengo
Inaziorekin».
- 4/ Martin ere utzi eta
gero Lorentziyo,
enpeñuak botatzen
orrenbesteraño;
mutillak despedida
bêla eman diyo:
«Dama, zu neretzako
etziñaden jaio.»
- 5/ Lorentziyo utzi eta
gero berriz Roke,
etsaiak orrelako
arterik ez dute;
majua ezin topatuz
orrenbeste neke,
dama orrek norbaitekin
ezkondu nai luke.

- 6/ Orra bada Marzial
gure artekua,
arri ere egin dio
bere ensaiua;
kopeta latzarekin
saiatu dan arte,
ez dio pakerik eman
ezkondu dan arte.
- 7/ Orra bada, Manuela
Donostia'kua,
lenbiziko ferian
etzan saltzekua;
mutillak engañatzen
txit da seriyua,
orixen da neskatxa
bizirik jaiua.
- 8/ Dama orren edadia
ogei ta amairu urte,
denbora jua zaionik
orrek ez du uste;
orla engañatu du
makiña bat gazte,
mariñelak artu du
beretzat emazte.

9/ Biajetik etorri ta
lenbiziko itza:
«Zer diozu, nere maite
biotzeko polita?»
Bigarren itzerako
laztan bat eskatu,
salatik sukaldera
ziran eskapatu.

10/ Aldameneko atsua
zuen entrepete,
ark ere egin dio
makiña bat kalte;
kopeta latzarekin
saiatu dan arte,
ez dio pakerik eman
saiatu dan arte.

11/ Jartzen giñadenian
kontuak kontari,
zeluak prebenitzen
giñuzkan alkarri;
zeluak ortik eta
zeluak emendik,
zeluak naramate
mundu onetatik.

12/ Ez da arrosarikan
arantzarik gabe,
ez da amoriorik
zelorikan gabe;
zeluak dituztenak
ezagun dirade:
matrall-ezurretako
koloria berde.

Amabi bertso auek, eta izenburua ere bai, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu. Bilduma ori, eskuz idatzia da.

Ez degu uste, sail ontako bertso guziak ongi kopiatuta daudenik. Bi alditan, 6/5-8 eta 9/5-8, puntua aldatuta dago; eta 10/5-8 eta 6/5-6 berdiñak dira.

Ortaz gaiñera, 11 eta 12'garren bertsoak baditeke zaarragoko beste sail batetik artuak izatea.

Egillearen izenik ez da ageri, eta bertsoak jarri ziran urterik ere ez.

BERTSO BERRIAK
SOLTERO DAENAK ESPABILLATZEKO
JARRIAK

1/ Gazte soltero nago,
ala nai det izan,
ez ezkondu ta jarri
bela familian;
gauza falta danian
beti armonian,
au subertatutzen da
leku geienian.

2/ Asten diradenian
ezkontza tratatzen,
aberatsak dirala
dute kontatzen;
ezta orduan ezeren
faltarik izaten,
dendara juan eta
soñekuak artzen.

- 3/ Soñekuaz gañera
erosi peñetak,
-zertarako diradez
orlako puñetak?–
raskamoñuak eta
abaniko beltzak;
eztin asko balio
zuen iñteresak.
- 4/ Diruak kastatu ta
panparroikerian,
zerbait luzitziarren
euren gorputzian,
ezer biar ezpalitz
bezela etxian,
soiñekua arrastaka
or zabiltz kalia. ¹
- 5/ Neronek izen banu
ezkontzeko griña,
andragei bat baneban
Josepa Juakiña.
Zu Josepa Juakiña,
ni naiz Jose Juakiñ,
izenez ondo gatoz
biok alkarrekiñ.

¹ Bertso-paperak: *kaillian*.

6/ Zure kuartuan ongi
luzitu nai bozu,
estanpa eder batzuek
be biar dituzu;
gañera silla fiñak
jarriko dituzu,
ixpillu bat ere bai
ongi nai badezu.

7/ Badakit diriana
zarrak baño obiak,
kama barkuak eta
komoda berriak,
alfronbre ederrak eta
mesa de notxiak,
gustora eukiteko
norberen begiak.

8/ Oraindik falta dira
gañera tretxuak,
kurtine ederrak eta
serbilletatxuak,
maia tokadoriakiñ
eta floreduak;
gauza asko biar du
bizitza osuak.

9/ Sukaldian biar da
orain zeinbat gauza:
eltz eta kazuela,
jikera ta taza,
kutxara ta tenedor,
kutxillo ta gasa,
almaiz, txokolatera,
trebera ta taza.

10/ Fratel eta katillu,
zartagi ta kazo,
paleta ta teneza,²
enburu ta baso,
arraiz-parrilla eta
beste gauza asko;
falta dirala uste dot
bolinero ta auspo.

11/ Sekule ezin kunplitu
lezake etxia,
orregatik obe da
libre egotia;
beti animoso da
soltero gaztia,
orrek libre izaten du
noranai juatia.

² Bertso-paperak: *Paleta tenesa*

12/ Ezkondu ta asko dagoz
ondo damaturik,
etxe ta familia
ezin atundurik,
errenta ta inguruak
pagatu ezinik;
orla bizi dirianak
ezin ein gauz onik.

13/ Umiak billosik ta
norbera gosian,
eztago animo andirik
aren biotzian;
konfientzaik ez iñun
da ezer ez etxian,
miseriak pasatzeko
ezkondu zinian.

Bertso-papera, *Eibar-en, Orue-en echian*
argitara emana eta Arantzazu'ko bilduman
arkitua.

BERTSO BERRIAK

- 1/ Bestek enkargatu nau
bertso bi jartzeko,
... .. 'n bizi dan
dama batentzako;
itxura polita du
engañatutzeko,
zer esana badute
neskatxa orrentzako,
gazte dalarik dauka
maliziya franko.

- 2/ Begiratu batian
fiña ematen du,
itxuraz ala dala
bestek esaten du;
jatorrezko oitura
eziñ zaio kendu,
gusto duenarekiñ
bere itza mantendu,
baliyätzen bazaio
ondo egiten du.

- 3/ Aditu berriya det
oien notiziya,
aukera baduela
amak pantasiya;
mutillak engañatzen
dago ikasiya,
begi alaia eta
mugira biziya,
askori gustatuba,
ezta itsusiya.
- 4/ Amak artuba dauka
zerbait erreparo,
bere sentimentuba
esateko klaro;
orrenbeste nobiyo
utzi du lenago,
orainguak ez ditu
urtiak igaro,
seguratu artian
arraxkuan dago.
- 5/ Damak eztu pentsatzen
gaizki ikusterik,
pretendiente asko
izan du gazterik;
zenbait engañatzen du
milla inbusterik,
artu nai baldiñ badu
iñork sinisterik,
ezta aziyuari
begiratu besterik.

- 6/ Gurasuak emana
dezu albistia,
al duen fortunarik
egiten astia;
bat seguru dezula
billatzen bestia,
buru-auste aundiya
daukazu, gaztia,
errukarri det zure
naspilla tristia.
- 7/ Alaba maitatzeko
ama ernegatzen,
lan daukala dirudi
suba menderatzen;
arto tartera joanda
loria ateratzen,
bakarrik utzitzia
eztala fiyatzan,
leku askotan dabill
ori deklaratzan.
- 8/ Esan dedan bezela
amak kontatuba,
txakur askok ondotik
dala tentatuba;
zenbaiti izan arren
gaizki portatuba,
oraindik maitatzen da,
ezta sobratuba,
gustokua omen du
oraingo tratuba.

- 9/ Egiyak jartzen dizkat
nai badu ameti,
konprenditzen dutenak
eztaude urruti;
fiñ dabillen mutillak
pagatu du petri,
orren esperantzetan
zeguelako beti,
sentimentuba franko
eman diyo bati.
- 10/ Atsuak izketako
jarri du segira,
besteren aitzakiya
botatzen ari da;
zerbait manifestatzen
aritzen badira,
gusto duena egon
liteke begira,
urrenguan obeto
klaratuko dira.
- 11/ Bire gaiztoko obrak
emango'itu lanak,
konsidera lezake
artakua danak;
kariño mudantia
izan arren damak,
galdezka ari gabe
jakiñ ditut famak,
alabak aña kulpa
badubela amak.

12/ Beste donostiar bat
egon zait kontari,
ark ere nai zuela
dama gazti ori;
tristia keja
baditu ugari,
berriz enga
ein gabe
suerte
enple

Bertso-papera, Usurbil'ko Egaluze-txiki baserritik, bertako Feliziano Aizpurua zana-ren bitartez.

Papera jira guzian guraizez ebakita dago, eta ez dakigu moldiztegi-izenik bazuan ala ez.

Lenengo bertsoan utsune bat arkitu du irakurleak. Erriaren izena zegoan or; eta, era ontako bertsoetan oitura degunez, kendu egin degu.

Amabigarren bertsoan ere, beste utsune batzuk. Papera autsita dago eta ezin irakurri.

Egillearen izenik ez da esaten. Baiñan enkarguz jarritako bertsoak dirala, lenengo bertsoak esaten digu.

AMORIYOZKO EZKONTZA

- 1/ – Ai, nere biyotzeko
Jose Antoniyo,
ezkontza bat zerratu
biar degu biyok;
zuregana badaukat
zenbait amoriyo,
penaz urtzen ari naiz
zu zeran meriyo.
- 2/ – Ai, Katalinatxo, nere
biyotzeko puska,
zure arrazoirikan
nik ezin det uka;
dotia badaukazu
asko sobratuta,
ondo biziko gera
biyok ezkontuta.

- 3/ – Lenago sobratua
badaukat dotia,
bañan ezin pasa dan
moneda-klasia;
zaku bat badabilkit
nerekin gordia,
bi sokakin lotua,
espartzuz betia.
- 4/ – Atzeko bultu ortan
al dezu zakua,
esan dezun bezela,
sokakin lotua?
Badirurizu ollo
lumik gabekua,
ori al zendun zure
dote sobratua?
- 5/ – Guardasol kirten motz bat
daukat arribotzat,
ta aitonen sonbrerua
jazteko zuretzat;
sei piper-pote utsak
gañera eltzetat,
azukre-kaja zar bat
jartzeko maientzat.

6/ – Nik ere badakaizkit
zuk bañan obiak:
dozen erdi txaketa
besorik gabiak.
Oñetakuak ere
aukeran pariak,
lau urtian lustrerik
ikutu gabiak.

7/ – Etxia listo dago
gauza guziyakin,
kandeleruen partez
kanabelarekin;
leiuhan kortinentzat
zaku zarrarekin,
lastima sukaldia
janai gutxirekin.

8/ – Etxian janai gutxi
otorduz jateko,
ikatza're auzuan
sua piztutzeko;
leiuetan zakua
argiya sartzeko,
etxe aproposa da
fonda bat jartzeko.

- 9/ – Jateko kontu ortan
oso naiz abilla,
bi golpetan jaten det
libra bat opilla;
alkar junta ditzagun
gure dote pilla,
eta asi zindizke
konpadrien billa.
- 10/ – Esposariyorako
badaukat trajia,
orain berrogei urte
aitonak lajia;
aspaldi topatua
daukat konpadria,
izena dauka Jose
Ogi-jantzallia.
- 11/ – Sukaldia badakit
ondo gobernatzan,
iñork baditet ezer
etxera ekartzan;
eta gañera berriz
plantzan eta josten,
oraiñ ikasiko det
pianua jotzen.

12/ – Oso abilla zaude
plantxan ta josteko,
premian arkitzen naiz
galtzak konpontzeko;
desiaturik nago
zu andre artzeko,
aspaldiyako partez
ogiz asetzeko.

13/ – Nere sukaldi ortan
dagon ontziduna:
arranparrilla zar bat
anka faltaduna;
paretian zintzilik
zartai zuloduna,
eta aspo ausi bat
muturrik eztuna.

14/ – Nik erosiko ditut
or falta diranak:
katillu, kazuela,
eltze eta danak,
plater karrakatuak
merke diradenak,
eta tenaz pare bat
isten eztiranak.

15/ – Nere armariyo ta
gañera kofriak,
oraiñ berregun urte
ederki kostiak;
dozen erdin bat silla
ondorik gabiak,
iñork eztu esango
gerala pobriak.

16/ – Jendiak jakitia
kontu abek on da,
etxian dakaizkigu
kafia ta fonda;
gure esposaiua
da oraingo moda,
orra bosna zentimo
Kataliñen boda.

Amasei bertso auek, Paris'ko *Liburutegi Nazionalean*'n dagoan paper batetik ditugu. Egillearen izenik ez du; moldiztegiarena bai: *Eibar - Imprenta de Pedro Orúe*. Eta izenburua, or goien ezarri deguna.

Eskuz-erantsita, itz auek ditu bertso-paper onek: *Pris à Durango, 1891*. Alegia, Durango'n eskuratua, 1891 urtean. Argitaratu ere urte berean egingo ote zan? Ditekena da, baiña segurutzat ezin artu.

Errenteri'ko Jertrudis Arrieta zanaren eskutik beste bi argitaraldi jaso genituan. Baten moldiztegi-izena: *Eibar*.— *Imprenta de Orúe*. Bestearena: *Imp. de B. Valverde - Irún*.

Alegi'ko Rikardo Intxausti zanaren bilduman bertso auen beste argitaraldi bat arkitu genduan, *Oñate: Imp. y Enc. de M. Raldúa* moldiztegian inprentatua.

Lau bertso-paper auek ez dute aldaketarik alkarrekin, moldiztegiaren utsegite bat edo beste izan ezik.

Beste bi argitaralditan ere arkitu ditugu bertso auek. Moldiztegi-izenak: *La Editorial Guipuzcoana - Tolosa* eta *Tip. Marqués y S.A. - Villafranca*.

Biak ere Tolosa'n jaso genituan: lenengo, Manuel Urreta zanaren eskutik, eta bestea Julio Rekalde'renetik.

Aldaketarik ez dute alkarrekin.

Bertso-paper auek ogei ta launa bertso dituzte. Bertso berri batzuk badiñuzte, beraz.

Leengo sailletan daudenai ikutu batzuk egin dizkie eskuren batek, an eta eman itzak aldatuz; eta, oi danez, obetu bearrean, izkera trakestu.

Orretaz gaiñera, bertsoak tokiz aldatuta daude eta izketaldia aldrebestuta: neskak esan bear dituanak, mutillak esan, eta mutillarenak neskaren aonan jarri. Eta bertso baten erantzuna dana, andik zenbait bertсотara atzeratu.

Orregatik, naiz-eta bi argitaraldi auek bertso geiago eduki, aurretik aitatu eta azaldutako beste argitaraldi oiek leenago-koak dira, eta jatorragoak ere bai.

Bi argitaraldi auen izenburua auxe da: *Kataliñen eta Joshe Antoniyoren ezkontza*.

Lenengo bertsoaren azpian onela dio:

Coro

*Gure Kataliñ,
iridak egin din,
istillu guziyak
nai dizkiñau jakin.*

Gero, bertso bakoitzaren bukaeran, es-tribillo orren asiera idazten da: *Gure Kataliñ, etc.*

Aurrena, beste lau paper oietako sei bertso datoz: 1, 2, 3, 12, 9 eta 4'garrena, aitaturako ordenean eta aldaketa auekin:

1/6: zenbat amoriyo; 1/8: zu zerala me-riyo; 2/1: Ai nere Katalinatxo; 3/1: Lenago sobratu-ta; 3/3: bañan pasa ezin dan; 3/5: nerekin badabilkit; 3/6: zakuba gordia; 3/7: bi sokakin lotu-ta; 9/2: naiz oso abilla; 9/3: bi kosketan jaten det; 9/4: librako opilla; 9/5 alkar bildu dezagun; 9/7: eta asi gaitezen; 12/5: zaleturikan nago; 12/7: aspaldiko partez.

Urrena, bost bertso berri auek:

Kataliñek:

Denbora bear da
gauzak jakiteko,
memoriya ere bai
guzik esateko;
jendea larri dago
kontuk jakiteko,
gure amoriozko
ezkontza galtzeko.

Joxe Antoniyok:

Egiya esateko
nago txit kontentu,
alaitasun on batek
nau ni gaur ikutu;
zuregana, Kataliñ,
naiz oso txoratu,
itz goxonak esaten
ezin naiz aspertu.

Kataliñek:

Au au poza neria
ori aditzian,
ematen didazu neri
orain biotzian!
Berotasun aundi bat
gorputza guzian,
Jose Antoniyo neria,
nik zu ikustian.

Joxe Antoniyok:

Obligatuko gera
denak esatera,
pardeleko trastiak
orain agertzera;
batere lotsik gabe
oiek zabaltzera,
ontzi-klase oietan
badegu aukera.

Kataliñek:

Muturra azaltzen du
parrilla autsiyak,
testamentuban neri
amonak utziya;
burruntzi, eltze-tapa
eta zartagiya,
aztu gabe're baita
burruntzaliya.

Ondoren, aurreko lau bertso-
paperetako bost bertso: 5, 6, 14, 7 eta
8'garrrena, aitatutako ordenean eta alda-
keta auekin:

5/2: daukat arreotzaz; 5/3: aitonan
sonbrerua; 5/6: gañera eltzetaz; 5/8:
jartzeko maietzaz; 6/1: Nik ere badauzkat;
6/3: dozen erdi bat txaketa; 6/8; ikusi ga-
biak; 7/1: Etxia pronto dago; 7/3: kandle-
ruan orde; 7/4: kañaberarekin; 7/5: leioe-

tan kurtinak; 8/2: otorduka jartzeko; 8/3: auzuan pospoluak; 8/5: leyoetan sakubak; 14/1: nik ekarriko ditut; 14/5: platera erre-kakuak; 14/7: tenaza pare bat.

Urrena, aurreko bertso-paperetan ez dauden zortzi bertso auek:

Kataliñek:

Nere gaurko asmoa
nai badezu jakin,
egun eder ortako
ez daukat gorontzik;
azpiko gonak ere
danak dauzkat autsik,
eskatzera nua
auzoko lñaxiri.

Jose Antoniyok:

Zure asmo ederra
ondo zait iruitzen,
jarraitu bear degu
palta dana ekartzen;
atzo aritu nintzan
tximinin pertza jartzen,
sukaldeko kutxa
koskolez betetzen.

Kataliñek:

Nere bizimoduba
juan dan aspaldikua,
ixillik egon gabe
da esatekua;
eguna iruditzen zait
urte betekua,
probatu gabiak ez daki
zer dan amoriyua.

Joxe Antoniyok:

Gogo aundi bat nik ere
det orain sentitzen,
larritasun aundi bat
gorputzan barrenen;
gau ta egun ametsetan
zu zaitut ikusten,
egun alai ori etorri
dedilla lenbailen.

Kataliñek:

Gauza bearrena
daukau esateko:
seaska ere badegu
gaur edo biyarko,
danboliñ aundi bat e
gaztañ erretzeko,
oiek jan da ondoren
bero-bero jartzeko.

Joxe Antoniyok:

Otsailleko illaren
biyarko egunean
esposatuko gera
bion mesedean;
txit asperturik gaude
gu bakardadean,
jarraitu dezagun ba
gurasoen legean.

Kataliñek:

Biyarko eguna
izango da guretzako,
bizi-modu berrian
alkarrekin asteko;
Kataliñ zuretzako
eta zu neretzako,
motibua badegu
pozez lertutzeko.

Biyak batian:


Bukatuko degu agur
egiñaz alkarri,
kontseju bat emanaz
gai dagon gureri:
epeltasun eta ikarak
neskazarrentzat utzirik,
ez dezue izango
ezkontzeko bildurrik.

Azkeneko onekin egiten da ogeitalau-
garrena. Aurreko lau bertso-paperetako 11,
13, 15 eta 16'garrena falta dira, beraz.

* * *

Oiartzun'go Bekoetxe'n jaiotako Martina
Makulegi'k, sail ontako bigarren bertsoa
kantatu zigun, «Ai, Katalintxo, nere biotze-
ko puska...» asten dan ori, onako doñu
onekin:





BERTSO BERRIAK
SENAR-EMAZTEGAIK ALKARRI JARRIAK

1/ *Mutillak:*

Pretensioaz nator,
Joxepa Antoni,
erantzutea nairik
galdetzen detani:
alkarrez bizitzera
dezala komeni,
zurretzat modukoa
izten bazaitzu ni.

2/ *Neskatxak:*

Erantzuten dizut bai
pozikan, Joakin,
zorionean ori
entzutearekin;
gustatuta zaudela
diozu neurekin,
apustu geiago ni
nagola zurekin.

3/ *Mutillak:*

Joxepa Antoni, zuk
neskatx onan antza,
nerekin izateko
orra esperantza;
ni ziur ez dezula
artuko mudantza,
pozak dir-dir biotzak
egiten dit dantza.

4/ *Neskatxak:*

Aitortu bear dizut:
gutxi det dotea,
aita-amak bezela
nazu arlotea;
zuretzako biotzez
bai borondatea,
obea da aurretik
garbi esatea.

5/ *Mutillak:*

Urte batzuek pasa
ditut Amerikan,
diru-mordo bat ere
ekarri andikan,
zurekin urtutzeko
zintzo gorderikan;
ez det dote bearrik,
zeu kamis utsikan.

6/ *Neskatxak:*

Auzoan dadukagun ¹
mutil zar Bautiste,
aurrena asitzen da
dotearen eske;
orrek, ikusten danez,
biak nai lituzke,
ori esposatzerik
aurten ez det uste.

7/ *Mutillak:*

Askotan det egi bat
zarretatik aitu:
guztiak nai dituanak
denak galtzen ditu;
Bautista ori ere
orla bada oitu,
mutil zar bearko du
betiko gelditu.

8/ *Neskatxak:*

Gaurko mutil batzuek
galdetutzen gala:
«Dote aundi xamarra
al daukazu ala?»
Olakoa ondotik
azkar dijoala,
Joakin, zu etzera
oien iguala.

¹ Bertso-paperak: *daukagun*.

9/ *Mutillak:*

Andregai egin baña len
dotearen eske,
egon bearko dute
berriz ere aske;
uda, negu, gau t'egun,
igande ta aste,
guk gerena egin zagun
or konpon bitezte.

10/ *Neskatxak:*

Joakin, sartu zerade
nere biotzera,
ez uste gero nik zu
desanparatzea;
egunero etorri,
bai, gure etxera,
gogoz egongo naiz-ta,
itzaspertutzera.

11/ *Mutillak:*

Zakurra aundia eta
dezute perroa,
belarri moztua ta
kalparra arroa;
ikaragarria da
egiten dun marrua,
ni bildur naiz sartutzen
atian barrua.

12/ *Neskatxak:*

Zakurra jarriko det
neronek katean,
posteari lotuta
txekorran tartean;
ez askatu ere gu
alkartu artean,
bildurrik gabe sartu
ataiko atean.

13/ *Mutillak:*

Esan bezela, lotu
zakur ori katez,
ozka egingo balit
guztiontzat kaltez;
itzegitea biok
oso borondatez,
illuntzero or nazu,
pozak egon zaitez.

14/ *Neskatxak:*

Biok gertatzen gera
gogo berokoak
ez dirade billatzen
nunai olakoak;
uztartu gaitzan azkar,
gero gerokoak,
onela nai dezala
Aita Jaungoikoak.

15/ *Mutillak*:

Auxen da gertaera
kariño onean,
alkarren esanetan
zer sinismenean!
Uztartuko gerade
zuk nai dezunean,
ojala balitzake
biarko egunean.

Amabost bertso auek, izenburu orrekin eta *Goi-Erritarrak* firmarekin, *Beasañ'en A. Zunzunegiren etxean* inprentatu ziran.

Bertso-paper ori Alegi'n arkitu genduan, Rikardo Intxausti zanaren bilduman.

Ziur ezin jakin; baiña baditeke, gure iritzirako beintzat, bertso auek Zaldibi'ko Patxi Erauskin zanarenak izatea. Bertsolari orren bizitza ta bertsoak: *Auspoa*, 130, 131 eta 132.

AMODIOZKO ASTIA

- 1/ Astelen batez galai bat
onduan zan bai jarri,
ta negarrez esan zizkiran
alako gauzak neri.
Kupitu nitzan galaiaz
ikusirikan larri,
orduantxen esan niyon:
«Biarrikan etorri.»
- 2/ Astiartian txit pozaz,
kasikan zoraturik,
gizarajuen larriya
eskutikan eldurik!
Etziran uzten, an neukan
beti nere ondotik.
«Galaia, biyar –esan niyon–
etorri bai goizetik.»

- 3/ Asteazkenean galaiak
neri bai onela dit:
«Laztango bat artu biar det
zure ezpainetatik.»
Eziñ inondikan ukatu
uraxen ikusirik:
«Pozikan emango dizut,
atoz biar goizetik.»
- 4/ Ostegunian goizetik
antxen nuen ondolik,
agindutako lastan billa,
itzik egiñ eziñik.
Alare etzan oso konten,
nik badakit zergatik:
«Atoz bai biar berriro,
al badezu inondik.»
- 5/ Ostiralian, jakiña,
inondik ez gauz onik;
saiatutzen zan galaia
ni arrapatu nairik.
Nola zegon ikusirik
iya-iya su arturik,
«Biar nai nuke –esan niyon–,
zaudez bada oraindik.»

6/ Larunbatian zan berriz,
ura aren indarra!
Baldin ikusi balu batek
egingo zun negarra.
Ez da argala batera,
baizikan txit azkarra;
kupiturikan esan niyon:
«Biar arte, ederra!»

7/ Igandian ura triste
itz obetxek entzunik,
esan niyon: «Gaurko egunez
ez da egiten lanik.
Aste guztiyan libre da
oraiñ da lenagatik;
lege santu au dator
aspaldi Elizatik.»

Zazpi bertso auek, bi tokitan arkitu ditugu: lenengo, Oxford'ko *Bodleian Library*'n, *Imp. de B. Valverde - Irún*'en argitaratutako bertso-paper batean; bigarren, Donostia'ko Gregorio Mujika zanaren bertso-bilduman, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún*'en plazara ateratako bertso-paper batean.

Biak izenburu bera dute, or goien ezarri deguna, eta alkarren artean ez dute alda-ketarik.

Neurriagatik ez dakigu zer esan. Bearbada, oso trakets neurtutako bertsoak dira; bearbada, guk ezagutzen ez degun doñuren batean moldatuta daude.

Bertsoen egillea nor dan ez da esaten. Ori somatzeko biderik ageri ere ez.

BERTSO BERRIAK
NERE MAITIARI JARRIAK

- 1/ Bertso berri batzuek
nái nituzke jarri (*bis*)
aspalditxotik ezautzen dedan
dama politari.
- 2/ Gorputza liraña du
ta oraindik gaztia;
naiago nuke zu baziñake
nere emaztia.
- 3/ Zure aitak ezautzeko
badaukat gogua,
zure aurrian nik emateko
satisfaziyua.
- 4/ Krabelin gorri eder bat
jardiñian dago,
ura neretzat izango dala
dudarik ez dago.

- 5/ Goizian jeiki eta
lenbiziko lana:
maitia, daukat pentsamentuba
jarriya zugana.
- 6/ Udaberrian txori
politen antzera,
nik ere nai det zurekin bizi,
konforme bazera.
- 7/ Egun ditxosu ori
etortzen danian,
esposatzera juan bear degu
automobillian.
- 8/ Begi beltz eder oiek
nolatan dituzu?
Amaika mutill gazte zuk miñez
jarriyak dituzu.
- 9/ Ez nuben sinistuko
probatu ezian
ain neska gazte ederrik zanik
lurraren gañian.
- 10/ Bazenekizuke zuk
guziyoren berri:
zuregatik nik egiñak ditut
milla txorakeri.

- 11/ Amets gozo eder bat
egin det lenguan:
zure abesti gozo legunak
entzuten nenguan.¹
- 12/ Zurekin itz egiten
jartzen naizenian,
ai zer nolako poza sentitzen
dedan barrenian!
- 13/ Kaiolian txoriya
egoten da triste;
ni ere ez naiz alegratutzen
zu ikusi arte.
- 14/ Ai, nork izan lezaken
zoriontasuna
mundu onetan irabazteko
zure maitasuna!
- 15/ Zu bañon aingerutxo
politagorikan,
ez det nik uste zeruan ere
izango danikan
- 16/ Zoriona nai nuke
nik zugan ikusi;
biyotz-biyotzez esaten dizut:
Agur, ondo bizi!

¹ Bertso-paperak: *negoan*.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea. Baiña Zarautz'ko *Itxaropena*'k inprentatua da, dudarik gabe. Bertsoen azpitik bi txistulariren marrazkia baitakar. Ain zuzen, *Bassarr'ren Bertso-Sorta* liburuan, 76 orri-aldean, *Txistulari zarra* izeneko bertsoaldiaren aurretik datorren marraski berbera. Ta liburu ori *Itxaropena*'k argitara emana da.

Noren eskutik jaso nuan ezin esan, idatzi ez baigenduan.

Egillearen izenik ere ez da iñun ageri. Baiña gisa ontako bertsoak askotan jarri izan oi zituan Mendaro Txirristakak. Ez al dira, beraz, arenak izango?

Bertso-mota oso berezia degu. Gutxitan ikusten dana.

Doñua, guk uste beintzat, *Quisiera ser alcalde Donostia'koa* kantarena izango da. Gerra ondoko urteetan sarritan kantatzen ziran bertso oiek. Eta egillea, ain zuzen, Mendaro Txirristaka zuten.


Mendaro Txirristaka'ren bizitza ta bertsoak, *Auspoa*'ren 120-121-122'gn alean arkituko ditu irakurleak.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: ZapiRAIN anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo* – *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).

176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).
186. *A. Zavala*: Neska-Mutillen arteko bertsoak.
187. *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA